3. Zergak ez diren zuzenbide publikoko beste diru-sarreren gestioari dagokionez, honako arau hauek aplikatuko dira:

3. En cuanto a la gestión de otros ingresos de derecho público no tributarios, se aplicarán:

a) Ordenantza honetara jasoriko arauak.

a) Las normas contenidas en esta Ordenanza.

b) Udalak, aldundiak edo estatuak aurkeztutako errekurtsoa arautzen duen araudi zehatzean jasotako aginduak.

b) Los preceptos contenidos en la normativa específica reguladora del recurso de que se trate, ya sea municipal, foral o estatal.

c) Urriaren 1eko 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duena eta Urriaren 1eko 40/2015 Legea, Sektore Publikoaren Erregimen Juridikoa arautzen duena.

c) La Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas y La Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

4. Zerga-maileguen eta zuzenbide publikoko udalerri mailako beste diru-sarreren bilketari dagokionez, honako arau hauek aplikatuko dira:

a) Ordenantza hau.

b) Abuztuaren 2ko 38/2006 Foru Dekretua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga-bilketa Erregelamendua onartzen duena.

c) Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen martxoaren 8ko 2/2005 Foru Araua eta 2007ko martxoaren 27ko 4/2007 Foru Araua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Finantza eta Aurrekontu Araubideari buruzkoa.

3. artikulua. Aplikazio esparrua.

1. Ordenantza hau zuzenbide publikoko diru-sarreren gestioari begira aplikatuko da, diru-sarreren titularra Ordiziako Udala edota haren Erakunde Autonomoak baldin badira.

2. Ordenantza honek bezala Ordenantza Fiskalek ere Ordiziako udalerriari begira izango dute eragina, eta benetako bizileku eta lurraldetasun printzipioei jarraiki aplikatuko dira, zuzenbidearen izaeraren arabera.

3. Alkatetza-Lehendakaritzak emaniko Dekretuen arabera, Ordenantza hau eta ordainarazpen bakoitza arautzen duten Ordenantzak interpretatzeko eta argitzeko xedapenak eman ahal izango dira.

II. KAPITULUA. ZERGAPEKOAREN ESKUBIDEAK ETA BERMEAK

1. SEKZIOA. Zergapekoaren Eskubide Orokorrak.

4. artikulua. Printzipio Nagusiak.

Ordenantza honek bereziki honako eskubide hauek ezagutzen ditu:

a) Udal Administrazioak zergen edukiari eta muntari buruz informatzeko eta laguntzeko eskubidea, hiritarrak zergekiko dauzkan betebeharrei erantzun diezaien.

4. En cuanto a la recaudación de los créditos tributarios y demás de derecho público locales, serán de aplicación:

a) La presente Ordenanza.

b) El Decreto Foral 38/2006, de 2 de agosto, por el que se aprueba el Reglamento de Recaudación del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

c) La Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa y la Norma Foral 4/2007, de 27 de marzo, de Régimen Financiero y Presupuestario del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Artículo 3. Ámbito de aplicación.

1. La presente Ordenanza se aplicará en la gestión de los ingresos de derecho público cuya titularidad corresponda al Ayuntamiento de Ordizia, o, a sus Organismos Autónomos.

2. La presente Ordenanza, así como las Ordenanzas Fiscales, obligarán en el término municipal de Ordizia y se aplicarán de acuerdo con los principios de residencia efectiva y de territorialidad, según la naturaleza del derecho.

3. Por Decreto de la Alcaldía-Presidencia se podrán dictar disposiciones interpretativas y aclaratorias de esta Ordenanza y de las Ordenanzas reguladoras de cada exacción.

CAPÍTULO II. DERECHOS Y GARANTÍAS DE LA/EL CONTRIBUYENTE

SECCIÓN 1.ª Derechos Generales de la/el Contribuyente.

Artículo 4. Principios Generales.

La presente Ordenanza reconoce, en particular, los siguientes derechos:

a) Derecho a ser informada/o y asistida/o por la Administración Municipal en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias acerca del contenido y alcance de las mismas.

b) Ordenantza honetan eta aplikatu daitekeen beste araudietan zehazturiko terminoetan beti ere, okerreko diru-sarreren itzultzeak eta bidezkoak diren ofiziozko itzultzeak jasotzeko eskubidea, dagozkion berandutze-interesak barne.

b) Derecho a obtener, en los términos previstos en la presente Ordenanza y en el resto de la normativa aplicable, las devoluciones de ingresos indebidos y las devoluciones de oficio que procedan, con abono del interés de demora correspondiente.

c) Zerga-zor baten exekuzioa baliogabetzeko (hala erabaki baldin badu finkoa den epai edo ebazpen administratiboak) aurreraturiko abalen eta beste bermeen kostua itzultzeko eskubidea, Ordenantza honetan eta aplikatu daitekeen beste araudietan xedaturikoaren arabera.

c) Derecho al reembolso, en la forma prevista en esta Ordenanza y en el resto de la normativa aplicable, del coste de los avales y otras garantías aportadas para suspender la ejecución de una deuda tributaria, en cuanto ésta sea declarada improcedente por sentencia o resolución administrativa firme.

d) Jardunbideen tramite-egoera ezagutzeko eskubidea, zergapekoak alde bat osatzen badu.

d) Derecho a conocer el estado de tramitación de los procedimientos en los que el o la contribuyente sea parte.

e) Zerga Administrazioaren zerbitzuan jarduten duten agintariak eta langileak zeintzuk diren ezagutzeko eskubidea, zerga- gestioaren jardunbideak beren ardurapean tramitatzen badira eta hiritarra interesatua baldin bada.

e) Derecho a conocer la identidad de las autoridades y personas al servicio de la Administración Tributaria, bajo cuya responsabilidad se tramitan los procedimientos de gestión tributaria en los que tenga la condición de interesado.

f) Zergapekoak berak aurkezturiko adierazpenen kopia eta ziurtagiria eskatzeko eskubidea.

f) Derecho a solicitar certificación y copia de las declaraciones por él presentadas.

g) Jada aurkeztutako eta Udal Administrazioaren esku dauden dokumentuak berriro ere ez aurkezteko eskubidea, eta egoera honen inguruan ondo informatua
egoteko eskubidea.

g) Derecho a no aportar los documentos ya presentados y que se encuentren en poder de la Administración Municipal, informando concretamente de esta situación.

h) Udal Zerga Administrazioak eskuratutako datu, txosten edo aurretikoen ezkutuko izaeraren eskubidea.

h) Derecho al carácter reservado de los datos, informes o antecedentes obtenidos por la Administración Tributaria Municipal.

i) Udal Zerga Administrazioaren zerbitzuan lan egiten dutenen aldetik beharreko begirunez eta adeitasunez hartua izateko eskubidea.

i) Derecho a ser tratada/o con el debido respeto y consideración por el personal al servicio de la Administración Tributaria Municipal.

j) Administrazioaren jarduerak hiritarrarentzako ahalik eta modurik merkeenean bideratzeko eskubidea.

j) Derecho a que las actuaciones de la Administración que requieran su intervención se lleven a cabo en la forma que le resulte menos gravosa.

k) Alegazioak eta dokumentuak aurkezteko eskubidea. Alegazio eta dokumentu horiek kontuan hartuko dituzte organo eskudunek, dagokion erabakirako proposamena erredaktatzeko orduan.

k) Derecho a formular alegaciones y a aportar documentos que serán tenidos en cuenta por los órganos competentes al redactar la correspondiente propuesta de resolución.

l) Erabakirako proposamena erredaktatu baino lehen eta entzute-tramitean entzuna izateko eskubidea.

l) Derecho a ser oída/o en el trámite de audiencia con carácter previo a la redacción de la propuesta de resolución.

m) Erosi edo transmititu beharreko ondare higiezinen balioen gaineko informazioa jasotzeko eskubidea.

m) Derecho a ser informada/o de los valores de los bienes inmuebles que vayan a ser objeto de adquisición o transmisión.

n) Zergak Ikuskatzeko Zerbitzuak bideratu beharreko egiaztatze eta ikertze jarduerari ekin aurretik, jarduera horien izaerari eta muntari buruzko informazioa jasotzeko eskubidea. Halaber, jarduera horietan zehar hiritarrak dauzkan eskubideen eta betebeharren berri izateko eskubidea, eta jarduera horiek ordenantza honetan xedaturiko epeetan garatzeko eskubidea.

n) Derecho a ser informada/o, al inicio de las actuaciones de comprobación e investigación llevadas a cabo por el Servicio de Inspección de Tributos, sobre la naturaleza y alcance de las mismas, así como sobre sus derechos y obligaciones en el curso de tales actuaciones y a que se desarrollen en los plazos previstos en la presente Ordenanza.

2. SEKZIOA. Eskubideak eta Bermeak zerga jardunbideetan.

SECCIÓN 2.ª Derechos y Garantías en los procedimientos tributarios.

5. artikulua. Erabakitzeko betebeharra.

Artículo 5. Obligación de resolver.

1. Ofizioz edo alde batek eraginda abiarazten diren zergen gestiorako jardunbideetan planteatzen diren arazo guztiak bereziki erabakitzeko betebeharra du Udal Zerga Administrazioak. Bereziki erabakitzeko betebehar hori ez da aplikatuko honako kasu hauetan:

1. La Administración tributaria municipal está obligada a resolver expresamente todas las cuestiones que se planteen en los procedimientos de gestión tributaria iniciados de oficio o a instancia de parte. Se exceptúa dicho deber de resolver expresamente en los casos siguientes:

—Jakinarazteko helburua baino ez duten eskubideen erabilerari dagozkion jardunbideetan.

—En los procedimientos relativos al ejercicio de derechos que sólo deban ser objeto de comunicación

—Jardunbideak helburu duen gaiak iraungi duenean, edota interesatuek uko egiten edo atzera egiten dutenean.

—Cuando se produzca la caducidad, la pérdida sobrevenida del objeto del procedimiento, la renuncia o el desistimiento de las interesadas o interesados.

2. Likidazio ekintzak, balioa egiaztatzeko jarduerak, errekurtsoak eta erreklamazioak erabakitzen dituztenak, zerga gestiorako ekintzen exekuzioa baliogabetzea ukatzen dituztenak eta indarrean dagoen araudian xedatzen direnak, zuzenbidearen araberako ekintza eta oinarrien araberakoak izango dira.

2. Los actos de liquidación, los de comprobación de valor, los que resuelvan recursos y reclamaciones, los que denieguen la suspensión de la ejecución de actos de gestión tributaria, así como cuantos otros se establezcan en la normativa vigente, serán motivados, con referencia a los hechos y fundamentos de derecho.

6. artikulua. Jardunbideen tramitazioaren egoera.

Artículo 6. Estado de tramitación de los procedimientos.

Zerga gestiorako udal jardunbideko atala osatzen duen zergapekoak une oro ezagutu ahal izango du jardunbidearen tramitazioaren egoera. Halaber, berak ordainduta eskuratu ahal izango du espedientera jasotzen diren dokumentuen kopia, organo eskudunak ebazpena erabakitzeko orduan dokumentu horiek kontuan hartu behar baldin baditu, hirugarrenen interesen edo beste pertsonen intimitatearen aurkakoak ez badira edo legeren baten hala xedatzen ez badu.

La o el contribuyente que sea parte en un procedimiento municipal de gestión tributaria podrá conocer, en cualquier momento de su desarrollo, el estado de la tramitación del procedimiento. Asimismo, podrá obtener, a su costa, copia de los documentos que figuren en el expediente y que hayan de ser tenidos en cuenta por el órgano competente a la hora de dictar la resolución, salvo que afecten a intereses de terceros o a la intimidad de otras personas o que así lo disponga una ley.

7. artikulua. Jardunbideen tramitazioaren arduradunen identifikazioa.

Artículo 7. Identificación de los responsables de la tramitación de los procedimientos.

1. Udal Zerga Administrazioaren zerbitzuan lan egiten duten agintariak eta langileak zeintzuk diren ezagutu ahal izango dituzte zergapekoek, zergaren gestioaren jardunbideak beren ardurapean tramitatzen badira eta hiritarra interesatua baldin bada.

1. Las y los contribuyentes podrán conocer la identidad de las autoridades y personal al servicio de la Administración Tributaria Municipal bajo cuya responsabilidad se tramiten los procedimientos de gestión tributaria en los que tengan la condición de interesadas o interesados.

2. Alkatetza-Lehendakaritzari zuzenduko zaizkio jardunbideen tramitazioaz edo erabakiez arduratzen direnen identifikazioari buruz zergapekoek aurkez ditzaketen eskaerak.

2. Las solicitudes de las y los contribuyentes relativas a la identificación de los responsables de la tramitación o resolución de los procedimientos se dirigirán a la Alcaldía- Presidencia.

3. Ordenantza honetan zehazturiko banaketaren arabera, udal organo eta zerbitzuei dagokie funtzio-esparru desberdinen aurreko ardura.

3. La responsabilidad de las diferentes áreas funcionales corresponde a los órganos y servicios municipales, según la distribución establecida en la presente Ordenanza.

8. artikulua. Adierazpenak eta dokumentuak aurkeztu izanaren egiaztagirien bidalketa.

Artículo 8. Expedición de certificaciones y copias acreditativas de la presentación de declaraciones y documentos.

Zergapekoek badute berek aurkezturiko zerga-adierazpenak edo horietara jasoriko atal jakinak aurkeztu izanaren egiaztagiria jasotzeko eskubidea.

Las y los contribuyentes tienen derecho a que se les expida certificación de las declaraciones tributarias por ellos presentadas o de extremos concretos contenidos en las mismas.

Halaber, Zerga Administrazioaren aurrean dokumentuak aurkeztu direla egiaztatzeko eta dokumentu horiek zein egunetan aurkeztu diren egiaztatzeko, zergapekoek badute dokumentu zigilatuen kopia jasotzeko eskubidea, beti ere jatorrizkoekin batera aurkezten baldin badira (alderatu ahal izateko). Dokumentu horiek ez badira espedientera jaso behar, jatorrizkoak itzultzeko eskaera aurkez dezakete zergapekoek.

Asimismo, a efectos de la acreditación de la presentación de documentos ante la Administración Tributaria, así como de la fecha de dicha presentación, las y los contribuyentes tienen derecho a obtener copia sellada de los mismos, siempre que la aporten junto con los originales para su cotejo y, en el caso de que dichos documentos no deban obrar en el expediente, podrán solicitar la devolución de tales originales.

9. artikulua. Dokumentuen aurkezpena.

Artículo 9. Presentación de documentos.

Zergapekoek uko egin diezaiokete dagokion zerga gestiorako jardunbideari aplikatu dakiokeen arautegiak eskatzen ez dituen dokumentuak aurkezteari. Halaber, zergapekoek berek jada aurkeztutako dokumentuak, Udal Administrazioaren esku daudenak, berriro ere ez aurkezteko eskubidea dute.

Las y los contribuyentes pueden rehusar la presentación de documentos que no resulten exigidos por la normativa aplicable al procedimiento de gestión tributaria de que se trate. Asimismo, tienen derecho a no aportar aquellos documentos ya presentados por ellas o ellos mismos y que se encuentren en poder de la Administración Municipal.

Udalak, edozein kasutan, interesatuari dei egin ahal izango dio berak aldez aurretik aurkezturiko eta dokumentu horietan jasoriko datu zehatzak (edo hirugarrenari dagozkionak) berresteko.

El Ayuntamiento podrá, en todo caso, requerir a la interesada o interesado la ratificación de aquellos datos específicos propios o de terceros, previamente aportados, contenidos en dichos documentos.

10. artikulua. Zerga Administrazioak eskuraturiko informazioaren ezkutuko izaera eta Administrazioaren artxiboetan eta erregistroetan sarrera izateko

Artículo 10. Carácter reservado de la información obtenida por la Administración Tributaria y acceso a archivos y registros administrativos.

eskubidea.

1. Udal Zerga Administrazioak eskuraturiko datu, txosten edo aurretikoek ezkutuko izaera dute, eta ezin izango zaizkie hirugarrengoei utzi edo beren berri eman, legeetan aurreikusten den kasu bereziaren kontua ez bada

Datu, txosten edo aurretiko horien berri duten agintari eta funtzionarioek sekretuan eta gordean edukiko dituzte, legeetan aurreikusten den kasu bereziaren kontua ez bada.

2. Aurreko atalean aurreikusiriko markoan, zergapekoek badute administrazioaren artxiboetan espediente bat osatuz dauden erregistro eta dokumentuak eskuratzeko aukera, baina espediente horrek eskaera egilea partaide izan den eta eskaera egunerako amaiturik dagoen jardunbideari erantzun behar dio nahitaez.

1. Los datos, informes o antecedentes obtenidos por la Administración Tributaria Municipal tienen carácter reservado, sin que puedan ser cedidos o comunicados a terceros, salvo en los supuestos previstos en las leyes.

Cuantas autoridades o funcionarias tengan conocimiento de estos datos, informes o antecedentes estarán obligados al más estricto y completo sigilo respecto de ellos, salvo en los casos previstos en las leyes.

2. En el marco previsto en el apartado anterior, los contribuyentes pueden acceder a los registros y documentos que, formando parte de un expediente, obren en los archivos administrativos, siempre que tales expedientes correspondan a procedimientos terminados en la fecha de la solicitud en los que la o el solicitante haya intervenido.

11. artikulua. Adeitasunezko harremana.

Zergapekoek, Ordiziako Udal Zerga Administrazioarekin dauzkaten harremanetan, Administrazioko zerbitzuan lan egiten dutenen aldetik gizabidezko adeitasunez eta begirunez tratatuak izateko eskubidea dute.

Artículo 11. Trato respetuoso.

Las y los contribuyentes tienen derecho, en sus relaciones con la Administración Tributaria del Ayuntamiento de Ordizia, a ser tratadas y tratados con el debido respeto y consideración por el personal al servicio de aquélla.

12. artikulua. Administrazioak eskubideen erabilera errazteko duen betebeharra.

Ordiziako Udalak une oro erraztasunak emango dizkio zergapekoari bere eskubideak erabili eta betebeharrak bete ditzan. Zergapekoen parte hartzea eskatzen duten Administrazioaren jarduerak, zergapekoentzako merkeena den moduan eta zergen inguruan dauzkaten betebeharrak betetzeko moduan bideratuko dira.

Artículo 12. Obligación de la Administración de facilitar el ejercicio de los derechos.

El Ayuntamiento de Ordizia facilitará en todo momento a la o el contribuyente, el ejercicio de sus derechos y el cumplimiento de sus obligaciones. Las actuaciones de la Administración que requieran la intervención de las o los contribuyentes deberán llevarse a cabo de la forma que resulte menos gravosa para éstas o éstos y sea compatible con el cumplimiento de sus obligaciones tributarias.

13. artikulua. Alegazioak.

Artículo 13. Alegaciones.

Zergapekoek, zerga gestioaren jardunbidearen edozein unetan, entzuteko tramitea baino lehen edo, hala behar badu, erabakiaren proposamena erredaktatu baino lehen, alegazioak, dokumentuak edo iritzi- elementuak aurkeztu ahal izango ditu, eta erabakiaren proposamena erredaktatzeko organo eskudunek kontuan hartuko dituzte alegazio, dokumentu edo iritzi horiek. Nolanahi ere, erabakiaren aurretikoetan bereziki adieraziko da ekarpenaren zirkunstantzia.

Las y los contribuyentes podrán, en cualquier momento del procedimiento de gestión tributaria, anterior al trámite de audiencia o, en su caso, a la redacción de la propuesta de resolución, aducir alegaciones y aportar documentos u otros elementos de juicio, que serán tenidos en cuenta por los órganos competentes al redactar la correspondiente propuesta de resolución, haciéndose expresa mención de la circunstancia de su aportación en los antecedentes de ésta.

14. artikulua. Audientzia interesatuari.

Artículo 14. Audiencia a la persona interesada.

1. Zerga gestioaren jardunbide guztietan, erabakiaren proposamena erredaktatu baino lehen, entzun egingo zaio interesatuari bere eskubideen araberako alegazioak aurkezteko modua izan dezan.

1. En todo procedimiento de gestión tributaria se dará audiencia a la persona interesada, antes de redactar la propuesta de resolución, para que pueda alegar los que convenga a su derecho.

Ikuskapenaren jardunbidean, berriz, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Ikuskapen Arautegian zehazten den terminoetan entzungo zaio interesatuari.

En el procedimiento de inspección, se dará audiencia a la persona interesada en los términos previstos en el Reglamento de Inspección del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Zerga-bilketaren jardunbidean, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Diru- Bilketaren Arautegian aurreikusten diren jardueretan entzungo zaio interesatuari.

En el procedimiento de recaudación, se dará audiencia en aquéllas actuaciones en que así se prevea en el Reglamento de Recaudación del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Gestioaren jardunbidean, aldiz, erabaki administratiboa hartzeko beste Administrazioek edo interesatuak aurkezturiko beste datu batzuk edo ekintzak kontuan hartu behar izatean entzungo zaio interesatuari.

En el procedimiento de gestión, se dará trámite de audiencia cuando, para la adopción de la resolución administrativa, se tengan en cuenta hechos o datos diferentes de los aportados por otras Administraciones o por el interesado.

2. Entzuteko tramitea bazter batean utz daiteke interesatuak aurkezturikoez gainera jardunbidean beste ekintza, alegazio eta frogarik aurkezten ez denean edo kontuan hartzen ez denean.

2. Se podrá prescindir del trámite de audiencia cuando no figuren en el procedimiento ni sean tenidos en cuenta en la resolución otros hechos ni otras alegaciones y pruebas, que las aducidas por la persona interesada.

Interesatuari entzuteko tramitea bereziki albora utzi daiteke zergapekoak aurkezturiko egintza eta dokumentuetan egon litezkeen huts aritmetiko arruntak zuzendu baino egin behar ez denean, eta Zergen gaineko Foru Arau Orokorraren 61.3. eta 127. artikuluen araberako errekarguen likidazioetan.

Especialmente, podrá prescindirse del trámite de audiencia cuando se trate de rectificar meros errores aritméticos deducidos de los hechos y documentos presentados por la o el contribuyente, así como en los supuestos de liquidación de los recargos de los artículos 61.3 y 127 de la Norma Foral General Tributaria.

3. Interesatuari entzuteko tramitea behar izan ez den jardunbideetan emaniko ebazpenetan, azaldu egingo da entzuteko tramitea burura ez eramateko legezko arrazoia.

3. En las resoluciones dictadas en aquellos procedimientos en los que no haya resultado necesario el trámite de audiencia, se hará constar el motivo legal de su no realización.

4. Izaera orokor batez, hamar egunekoa izango da interesatuari entzuteko tramitearen epea.

4. Con carácter general, el plazo de audiencia será de diez días.

3. SEKZIOA. Eskubideak eta Bermeak ikuskapenaren jardunbidean.

15. artikulua. Ikuskapen Planak.

Ekonomia eta Ogasuna Arloko Zinegotzi-Ordezkariak proposaturik eta Alkatetza-Lehendakaritzak emaniko Dekretuaren bidez onartuko da Udal Ikuskapen Plana, eta jendaurrera eramango dira Planaren irizpideak.

16 artikulua. Egiaztatzeko eta ikertzeko jardueren aurretiko informazioa.

Zergapekoek badute, Zergen Udal Ikuskatzaileek bideratutako egiaztatze eta ikertze jardueraren hasieran, jarduera horien izaera eta muntaren berri izateko eskubidea, baita jarduera horietan zehar dauzkaten eskubideen eta betebeharren berri izateko eskubidea ere.

17. artikulua. Egiaztatze eta ikertze jardueren irismena.

1. Zergak Ikuskatzeko Zerbitzuak bideraturiko izaera partzialeko egiaztatze eta ikertze jardueraren helburu den zergapeko orok du Zerga Administrazioari egiaztatze horrek izaera orokorra izan dezala eskatzeko eskubidea. Nolanahi ere, eskaera horrek ez ditu abian diren jarduerak etengo.

2. Izaera partzialeko ikuskatze jardueren abiaraztea jakinarazten den egunetik hasita
15 eguneko epea du zergapekoak eskaera aurkezteko.

3. Jardueren hedadura zabaltzeko eskaera ikusirik, Zergak Ikuskatzeko Zerbitzuko Buruzagitzak jarduerak zabaltzea egokia ala desegokia den erabakiko du, eta jarduera esleitzen zaion jardulearen identitatearen berri emango du. Jarduerak zabaltzeko desegokitasunaren aldarrikapenak arrazoi sendoak izango ditu. Erabaki hori jakinarazi ondoren, badago berraztertzeko errekurtsoa aurkeztea.

4. Jardueren hedadura zabaltzeko erabakia eta jakinarazpena eskaera jaso zen egunetik hasita 6 hilabeteko epean emango dira. Gisa berean, epe horretan emango zaio hasiera izaera orokorreko egiaztatzeari.

18. artikulua. Epea.

SECCIÓN 3.ª Derechos y Garantías en el procedimiento de inspección.

Artículo 15. Planes de Inspección.

Mediante Decreto de la Alcaldía- Presidencia, a propuesta del Concejal - Delegado del Área de Economía y Hacienda, se aprobará el Plan Municipal de Inspección cuyos criterios se harán públicos.

Artículo 16. Información al inicio de las actuaciones de comprobación e investigación.

Las y los contribuyentes tienen derecho a ser informados, al inicio de las actuaciones de comprobación e investigación llevadas a cabo por las Inspección Municipal de Tributos, sobre la naturaleza y alcance de las mismas, así como sobre sus derechos y obligaciones en el curso de tales actuaciones.

Artículo 17. Alcance de las actuaciones de comprobación e investigación.

1. Toda y todo contribuyente que esté siendo objeto de una actuación de comprobación e investigación de carácter parcial llevada a cabo por el Servicio de Inspección de Tributos, podrá solicitar a la Administración Tributaria que dicha comprobación tenga carácter general, sin que tal solicitud interrumpa las actuaciones en curso.

2. La o el contribuyente tendrá que efectuar la solicitud en un plazo de 15 días desde que se produzca la notificación del inicio de las actuaciones inspectoras de carácter parcial.

3. Vista la solicitud de ampliación, la Jefatura del Servicio de Inspección de Tributos resolverá sobre la procedencia o improcedencia de la ampliación, así como la identidad del actuario al que se asigna la misma. La declaración de la improcedencia de la ampliación deberá estar debidamente motivada. Dicha resolución una vez notificada será susceptible de recurso de reposición.

4. La resolución por la que se acuerde la ampliación de actuaciones y su notificación tendrán lugar en el plazo de 6 meses siguientes a la fecha de recepción de la solicitud. Asimismo, dentro del mismo plazo, deberá iniciarse la comprobación de carácter general.

Artículo 18. Plazo.

1. 12 hilabeteko epe gorenean amaitu behar dute Zergak Ikuskatzeko Zerbitzuak bideratu beharreko egiaztatze, ikertze eta likidatze jarduerak. Nolanahi ere, amaitu arte jarraituko dute, horretarako zehazten diren arauzko baldintzekin eta irismenarekin, ondoko zirkunstantziaren bat aurkezten duten jarduerek:

a) Bereziki konplexuak diren jarduerak direnean.

b) Jardueretan zehar ezkutuko jarduerak agerian geratzen direnean.

c) Beharrezkoak direnean zergapekoek edo hirugarrengoek baino eskain ez ditzaketen informazioak eta informazio horien lortzeak espedientearen gaineko erabakia atzeratzen duenean.

2. Aurreko atalean zehaztutako epea ez betetzera, ez da etentzat joko jarduera horien ondoko preskripzioa.

1. Las actuaciones de comprobación e investigación y las de liquidación llevadas a cabo por el Servicio de Inspección de Tributos deberán concluir en el plazo máximo de 12 meses. No obstante, continuarán hasta su finalización, con el alcance y requisitos que reglamentariamente se determinen, las actuaciones en las que concurra alguna de las siguientes circunstancias:

a) Que se trate de actuaciones de especial complejidad.

b) Cuando en el curso de las mismas se descubran actividades ocultas.

c) Cuando sean necesarias informaciones que deban proporcionar las o los contribuyentes o terceros y su obtención demore la resolución del expediente.

2. El incumplimiento del plazo previsto en el apartado anterior determinará que no se considere interrumpida la prescripción como consecuencia de tales actuaciones.

4. SEKZIOA. Eskubideak eta Bermeak zerga- bilketaren jardunbidean.

19. artikulua. Ordainketa bertan behera uztea.

1. Zergapekoak, dagokion errekurtso edo erreklamazio administratiboa aurkeztuta, badu zerga-zorraren ordainketa bertan behera uzteko eskubidea. Horretarako, indarrean dagoen araudiak eskatzen dituen bermeak aurkeztu behar ditu. Bestalde eta araudi horren arabera beti, bermerik aurkeztu gabe atzeratu liteke ordainketa.

2. Zergapekoak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkezten duenean, eutsi egingo zaio administrazio-bidean erabakiriko ez ordaintzeko eskubideari. Horretarako nahikoa berme eskainiko da, organo judizial eskudunak zor horiek ez ordaintzeko gaiaren gain erabaki bat har dezan arte.

SECCIÓN 4.ª Derechos y Garantías en el procedimiento de recaudación.

Artículo 19. Suspensión del ingreso.

1. La o el contribuyente tiene derecho, con ocasión de la interposición del correspondiente recurso o reclamación administrativa, a que se suspenda el ingreso de la deuda tributaria, siempre que aporte las garantías exigidas por la normativa vigente, a menos que, de acuerdo con la misma, proceda la suspensión sin garantía.

2. Cuando la o el contribuyente interponga recurso contencioso-administrativo, la suspensión acordada en vía administrativa se mantendrá, siempre que exista garantía suficiente, hasta que el órgano judicial competente adopte la decisión que corresponda en relación con dicha suspensión.

5. SEKZIOA. Eskubideak eta Bermeak zigor-jardunbidean.

20. artikulua. Fede oneko presuntzioa.

SECCIÓN 5.ª Derechos y Garantías en el procedimiento sancionador.

Artículo 20. Presunción de buena fe.

Zergapekoen jarduerak fede onez egiten bide dira. Udal Zergen Administrazioak aurkeztu behar ditu, zergen gaineko arau-hausteen batzordean, arau-hauslearen errua agerian uzten duten zirkunstantzien frogak.

La actuación de las y los contribuyentes se presume realizada de buena fe. Corresponde a la Administración Tributaria Municipal la prueba de que concurren las circunstancias que determinen la culpabilidad de la persona infractora en la comisión de infracciones tributarias.

6. SEKZIOA. Errekurtsoak eta Erreklamazioak.

Sección 6.ª Recursos y reclamaciones.

21. artikulua. Errekurtsoak eta erreklamazioak.

Zergapekoek badute, legeetan aurreikusiriko baldintzetan, Zerga Administrazioak ezarririko egintzen aurka administrazio-bidean aurkez daitezkeen errekurtsoak eta erreklamazioak aurkezteko eskubidea. Halaber, badute egintza horien jakinarazpenean bidezko errekurtsoa, berau jartzeko epea eta errekurtsoa aurkezteko organoa ondo zehaztuta agertzeko eskubidea.

Artículo 21. Recursos y reclamaciones.

Las y los contribuyentes tienen derecho, en los términos legalmente previstos, a interponer en vía administrativa los recursos y reclamaciones que procedan contra los actos dictados por la Administración Tributaria, así como a que en la notificación de dichos actos se indique el recurso procedente, el plazo para su interposición y el órgano ante el que debe formularse.

II. TITULUA JARDUNBIDEA

TÍTULO II PROCEDIMIENTO

22. artikulua. Alde orokorrak.

Artículo 22. Aspectos generales.

1. Legezkotasun, ekonomia, arintasun eta eraginkortasun irizpideen arabera bideratuko da espedienteen tramitazioa, eta ahaleginak egingo dira hiritarrak burutu beharreko tramiteak erraztearren eta hiritarrak Administrazioaren informazioan sarrera izan dezan.

1. La tramitación de los Expedientes estará guiada por los criterios de legalidad, economía, celeridad y eficacia, procurando asimismo simplificar los trámites que debe realizar la ciudadana o el ciudadano y facilitar el acceso de estas personas a la información administrativa.

2. Alkatetza-Lehendakaritzak eskuduntzak erabiltzeko bezala erabaki administratiboak izenpetzeko ahalak eman diezazkioke ordezkari bati.

2. La Alcaldía-Presidencia podrá delegar el ejercicio de competencias y la firma de resoluciones administrativas, salvo que legalmente se prohibiera tal delegación.

3. Administrazio honetako organoen arteko ordezkaritzek hartutako erabaki administratiboetan bereziki azalduko da zirkunstantzia hori, eta erabaki horiek hartzeko eskuduntzak bestearen esku utzi duenak hartutako erabakitzat joko dira.

3. Las resoluciones administrativas que se adopten por delegación entre órganos de esta Administración indicarán expresamente esta circunstancia y se considerarán dictadas por el órgano delegante.

23. artikulua. Epeen neurketa.

Artículo 23. Cómputo de plazos.

1. Besterik azaldu ezean, epeak egunetan zehazten direnean egun horiek lanegunak direla ulertu behar da eta, beraz, epe horretatik at geratzen dira larunbatak, igandeak eta jaiegunak.

1. Siempre que no se exprese otra cosa, cuando los plazos se señalen por días, se entiende que son hábiles, excluyéndose del cómputo los sábados, domingos y festivos.

2. Epea hilabetetan edo urteetan finkatzen bada, jakinarazpena egin den eguna edo dagokion egintzaren argitaratze eguna hartuko da aintzat eta

2. Si el plazo se fija en meses o años, éstos se computarán a partir del día siguiente a aquél en que tenga lugar la notificación o publicación del acto de

biharamunean hasiko da epea zenbatzen, edo administrazioaren isiltasuna aldekoa edo aurkakoa izango den biharamunean.

Epemuga-hilean epea zenbatzen hasi den egunaren baliokidea ez balego, epea hilaren azkeneko egunean bukatuko dela ulertuko da.

3. Egunetan zehaztutako epeak jakinarazpena emango den eguna edo dagokion egintzaren argitaratze eguna hartuko da aintzat eta biharamunean hasiko dira zenbatzen, edo administrazioaren isiltasuna aldekoa edo aurkakoa izango den biharamunean.

4. Kasu oso berezietan, ofizioz edo interesatuek hala eskatu dutelako, epeen luzapena onartu ahal izango da, luzapenak epearen erdia gainditzen ez badu.

que se trate, o desde el siguiente a aquél en que se produzca la estimación o desestimación por silencio administrativo.

Si en el mes de vencimiento no hubiera día equivalente a aquél en que comienza el cómputo, se entenderá que el plazo expira el último día del mes

3. Los plazos expresados en días se contarán a partir del día siguiente a aquél en que tenga lugar la notificación o publicación del acto de que se trate, o desde el siguiente a aquél en que se produzca la estimación o desestimación por silencio administrativo.

4. Excepcionalmente, de oficio o a petición de los interesados, se podrá conceder una ampliación de plazos que no exceda de la mitad de los mismos.

24. artikulua. Espedienteen tramitazioa.

1. Eskaerek ez badituzte indarrean dagoen araudiak eskatzen dituen baldintza guztiak betetzen, interesatuari dei egingo zaio hamar eguneko epean hutsak zuzendu ditzan. Eta ohartaraziko zaio horrela ez egitera, bere eskaerari uko egin diola ulertuko dela. Hortaz, besterik gabe artxibatu egingo litzateke espedientea.

2. Funtsean berdinak diren edo harreman estua duten jardunbideen bilketa aginduko da. Ez dago bilketa horren aurkako errekurtsorik aurkezterik.

3. Izaera berdintsuko espedienteen ebazpenean, ondo kontuan hartuko da espedienteak abiarazteko txanda zehatza.

4. Interesatuak eskaturik abiaraziriko jardunbideetan, interesatuari jardunbidearekin aurrera egiteko beharrezko dokumentuak eskatu eta eskaera egin eta hiru hilabeteko epean dokumentu horiek aurkeztu ez baditu, bertan behera geratuko da jardunbidea eta artxibatu egingo dira jarduerak, horren guzti horren berri interesatuari jakinarazi ondoren.

Artículo 24. Tramitación de expedientes.

1. Si las solicitudes no reúnen todos los requisitos exigidos por la normativa vigente, se requerirá al interesado para que en un plazo de diez días subsane las anomalías con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistido de su petición archivándose sin más trámite el expediente.

2. Se ordenará la acumulación de procedimientos que entre sí guarden identidad sustancial o íntima conexión. Contra dicha acumulación no cabrá recurso alguno.

3. En la resolución de expedientes de naturaleza homogénea se observará el orden riguroso de incoación.

4. En los procedimientos iniciados a solicitud de la persona interesada, cuando se le requiera la aportación de documentación necesaria para la continuidad del procedimiento y hayan transcurrido más de tres meses sin que sea cumplimentado el requerimiento, se producirá la caducidad del procedimiento y el archivo de las actuaciones, notificándoselo al interesado.

25. artikulua. Erabakiak hartzeko epeak.

Artículo 25. Plazos para resolver.

1. Sei hilabetekoa izango da zergen gestiorako, finantza izaerako gestiorako eta eskubide ekonomikoak ezagutzeko jardunbideen aurreko erabakia hartzeko epe gorena, aplika daitekeen arautegiak bestelako eperik zehazten ez badu. Udal Administrazioari ezin egotzi dakiokeen arrazoiren batengatik jardunbideak luzatu egiten badira, eten egingo da jardunbideen aurreko erabakia hartzeko epearen neurketa.

1. El plazo máximo de resolución de los procedimientos de gestión tributaria y de gestión financiera y reconocimiento de derechos económicos será de seis meses, salvo que la normativa aplicable fije un plazo distinto. Las dilaciones en el procedimiento por causa no imputable a la Administración Municipal interrumpirán el cómputo del plazo para resolverlo.

2. Aurreko atalean xedatutakoari jarraiki, ondoko epe eta ondorio hauen arabera erabakiko dira interesatuek Udalari egiten dizkioten eskaerak:

2. De acuerdo con lo dispuesto en el párrafo anterior, las solicitudes que los interesados dirijan al Ayuntamiento se resolverán en los plazos y con los efectos siguientes:

— Zergaren Gestiorako Jardunbideak.

— Procedimientos de Gestión Tributaria.

Jardunbidea: Udal zergei dagokienez, berraztertzeko errekurtsoa administrazioarekiko auzi-errekurtsoa abiarazi baino lehen.

Procedimiento: Recurso de reposición previo al contencioso-administrativo en materia de tributos locales.

Epe gorena: Hilabete bat.

Plazo máximo: 1 mes.

Isiltasunaren ondorioak: Atzera bota izana.

Efectos silencio: Desestimatorios.

Jardunbidea: Onura fiskalak onartzea Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergetan eta Hiri Izaerako Lur-eremuen Balioaren Gehikuntzaren gainean.

Procedimiento: Concesión de beneficios fiscales en los Impuestos sobre Vehículos de Tracción Mecánica y sobre el Incremento del Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana.

Epe gorena: Hilabete bat.

Plazo máximo: 1 mes.

Isiltasunaren ondorioak: Atzera bota izana.

Efectos silencio: Desestimatorios.

Jardunbidea: Onura fiskalak onartzea Udal Zerbitzu Publikoak eskaintzeagatiko Tasetan.

Procedimiento: Concesión de beneficios fiscales en las Tasas por prestación de Servicios Públicos Municipales.

Epe gorena: Hilabete bat.

Plazo máximo: 1 mes.

Isiltasunaren ondorioak: Atzera bota izana.

Efectos silencio: Desestimatorios.

Jardunbidea: Pertsona fisikoak eta juridikoak eskatuta, zerga-zorrak ordaintzeko luzapenak eta zatikatzeak onartzea.

Procedimiento: Concesión de aplazamientos y fraccionamientos para el pago de las deudas tributarias a instancia de personas físicas y jurídicas.

Epe gorena: Hilabete bat.

Plazo máximo: 1 mes.

Isiltasunaren ondorioak: Atzera bota izana.

Efectos silencio: Desestimatorios.

Jardunbidea: Ogasun Publikoaren zor eta maileguen konpentsazioa.

Procedimiento: Compensación de deudas y créditos de la Hacienda Pública.

Epe gorena: Hilabete bat.

Plazo máximo: 1 mes.

Isiltasunaren ondorioak: Atzera bota izana.

Efectos silencio: Desestimatorios.

Jardunbidea: Zerga-zigorrak barkatzeko espedienteen tramitazioa.

Procedimiento: Tramitación de expedientes de condonación de sanciones tributarias.

Epe gorena: Hilabete bat.

Plazo máximo: 1 mes.

Isiltasunaren ondorioak: Atzera bota izana.

Efectos silencio: Desestimatorios.

Jardunbidea: Aldaketa fisiko eta ekonomikoen adierazpenetatik eta ondare higiezinen arlo juridikoetatik eratorririko jardunbideak.

Procedimiento: Procedimientos derivados de las declaraciones de alteraciones físicas, económicas y de orden jurídico de los bienes inmuebles.

Epe gorena: 6 hilabete.

Plazo máximo: 6 meses.

Isiltasunaren ondorioak: Atzera bota izana.

Efectos silencio: Desestimatorios.

Jardunbidea: Onura fiskalak onartzea Ondare Higiezinen eta Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergetan.

Procedimiento: Concesión de beneficios fiscales en los Impuestos sobre Bienes Inmuebles y sobre Actividades Económicas.

Epe gorena: 6 hilabete.

Plazo máximo: 6 meses.

Isiltasunaren ondorioak: Atzera bota izana.

Efectos silencio: Desestimatorios.

Jardunbidea: Zerga bereziak ordaintzeko luzapenak eta ordainketa zatikatuak onartzea.

Procedimiento: Concesión de aplazamientos y fraccionamientos de pago de las contribuciones especiales.

Epe gorena: Hilabete bat.

Plazo máximo: 1 mes.

Isiltasunaren ondorioak: Atzera bota izana.

Efectos silencio: Desestimatorios.

— Finantza izaerako gestioa eta eskubide ekonomikoen onarpena.

— Gestión Financiera y Reconocimiento de derechos económicos.

Jardunbidea: Diru-sarrera okerren itzultzea.

Procedimiento: Devolución de ingresos indebidos.

Epe gorena: Hilabete bat.

Plazo máximo: 1 mes.

Isiltasunaren ondorioak: Atzera bota izana.

Efectos silencio: Desestimatorios.

Jardunbidea: Berandutze-interesen aurreko erreklamazioen tramitazioa.

Procedimiento: Tramitación de reclamaciones de intereses de demora.

Epe gorena: Hilabete bat.

Plazo máximo: 1 mes.

Isiltasunaren ondorioak: Atzera bota izana.

Efectos silencio: Desestimatorios.

Jardunbidea: Fidantzen itzultzea.

Procedimiento: Devolución de fianzas.

Epe gorena: Hilabete bat.

Plazo máximo: 1 mes.

Isiltasunaren ondorioak: Atzera bota izana.

Efectos silencio: Desestimatorios.

Jardunbidea: Onura fiskalak onartzea zerbitzuak eskaintzeagatiko Prezio Publikoen Tasetan.

Epe gorena: Hilabete bat.

Isiltasunaren ondorioak: Atzera bota izana.

Procedimiento: Concesión de beneficios fiscales en las Tasas en los Precios Públicos por prestación de servicios.

Plazo máximo: 1 mes.

Efectos silencio: Desestimatorios.

Jardunbidea: Pertsona fisiko eta juridikoek eskatuta, zergak ez diren zorrak ordaintzeko luzapena eta ordainketa zatikatua onartzea.

Epe gorena: Hilabete bat.

Isiltasunaren ondorioak: Atzera bota izana.

Procedimiento: Concesión de aplazamientos y fraccionamientos de deudas no tributarias a instancia de personas físicas y jurídicas.

Plazo máximo: 1 mes.

Efectos silencio: Desestimatorios.

Jardunbidea: Zergak ez diren zorren konpentsazioak onartzea.

Epe gorena: Hilabete bat.

Isiltasunaren ondorioak: Atzera bota izana.

Procedimiento: Autorización de compensaciones de deudas no tributarias.

Plazo máximo: 1 mes.

Efectos silencio: Desestimatorios.

3. Interesatuek aurkezturiko eskaerak onetsi egingo dira honako kasu hauetan:

a) Eskaera egileari egon badauden eskubideak erabiltzeko gaitasuna onets diezaioketen eskaerak baldin badira eta aurreko atalean azaldutako kasuren batean zehazten ez den kasua baldin bada.

b) Beste motatako kasu bat denean eta horretan aplikatu beharreko araudiak atzera botatzeko aukerarik aurreikusten ez duenean.

4. Kontuhartzailetzari dagokio epe horiek betetzeko kontrola eramatea.

3. Se entenderán estimadas las solicitudes formuladas por las personas interesadas en estos supuestos:

a) Cuando se trate de solicitudes cuya estimación habilitaría a la persona solicitante para el ejercicio de derechos preexistentes y siempre que no se hallen incluidas en alguno de los supuestos previstos en el apartado anterior.

b) Otros casos en cuya normativa de aplicación no se prevea la desestimación.

4. El control del cumplimiento de estos plazos corresponderá a la Intervención General.

III. TITULUA GESTIOAREN GAINEKO ARAUAK

TÍTULO III NORMAS SOBRE GESTIÓN

I. KAPITULUA. ZERGEN GESTIOA

CAPÍTULO I. GESTIÓN DE TRIBUTOS

1. SEKZIOA. Aldizkako epemuga

SECCIÓN 1.ª De vencimiento periódico.

26 artikulua. Ondare higiezinen gaineko zerga.

Artículo 26. Impuesto sobre Bienes Inmuebles.

1. Gipuzkoako Foru Aldundiak taxutuko du Ondare Higiezinen gaineko Zergaren Errolda Fiskala, eta azken urte naturalean zehar ondasunen gainean sortu diren izaera fisiko, ekonomiko eta juridikoko aldaketak jasoko dira hartara.

2. Karga duten ondasunen gainean sortzen diren izaera fisiko, ekonomiko eta juridikoko aldaketek erabateko eragina izango dute hurrengo urteko lehen egunetik hasita, eta epe horri dagokion erroldara jaso ahal izango dira aldaketa horiek, oinarri zergagarrian aldaketarik eragiten ez badute.

3. Ondare higiezin batean eraikuntza lanak egin baldin badira eta eraikuntza lanak amaitu ondoko ekitaldian katastroaren balio berria jakinarazten baldin bada, balio berri horrek lanak amaitu eta hurrengo urte naturalaren hasieratik izango du eragina.

Horrenbestez, eraikuntza lanak amaitu ondoko ekitaldiei dagokion Ondare Higiezinen gaineko Zerga kitatuko du Udalak, zoru eta eraikuntzari esleituriko katastroaren balioan oinarriturik.

4. Obrak amaitu eta hurrengo urtetik hasi eta ekitaldi honetan bukatzen den epea eskaintzen da Likidazioa egiteko, beti ere epe horrek ez baldin badu preskripzio-epea gainditzen. Epeak preskripzio-epea gainditzen baldin badu, preskribatu ez duten urteei dagokien Ondare Higiezinen gaineko Zerga baino ez da likidatuko.

5. Legezko murrizketak aplikatuta zehaztuko da oinarri zergagarria, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak zehaztu eta jakinaraziko du kopuru hori.

6. Subjektu pasiboek, nahitaez, alta, baja eta aldaketa egin izanaren adierazpena aurkeztu behar dute ondasunen gainean eginiko aldaketa horiek eragina dutenean zergaren likidazioari begira.

Nolanahi ere, jabariaren transmisio bat formalizatzen duen Eskritura Notari batek eman duenean eta Notari horrek Udalarekin hitzartu duenean jabari-ahalmenaren aldaketari buruzko informazioaren leku aldaketa, adierazpena aurkezteko betebeharretik aske geratuko da titularra.

7. Aurreko atalean zehazturiko ondorioei begira, Udalak Notariekin hitzartuko du higiezinen jabeen unean uneko aldaketak ezagutzeko jardunbidea.

1. El Padrón Fiscal del Impuesto sobre Bienes Inmuebles se elaborará por la Diputación Foral de Gipuzkoa y en el mismo se recogerán las variaciones de orden físico, económico y jurídico que se hubieran producido en los bienes durante el último año natural.

2. Las variaciones de orden físico, económico o jurídico que se produzcan en los bienes gravados tendrán efectividad desde el día primero del año siguiente, pudiendo incorporarse en el padrón correspondiente a este periodo dichas variaciones si de las mismas no ha derivado modificación de la base imponible.

3. Cuando se conozca la realización de construcciones sobre un bien inmueble y se notifique el nuevo valor catastral en un ejercicio posterior al de su conclusión, dicho valor tendrá efectividad desde el inicio del año natural inmediatamente siguiente al del fin de las obras.

En consecuencia, el Ayuntamiento liquidará el Impuesto sobre Bienes Inmuebles correspondiente a los ejercicios siguientes al de finalización de la construcción, en base al valor catastral asignado a suelo y construcción.

4. La Liquidación comprenderá un periodo que se iniciará en el año siguiente a aquel en que concluyeron las obras y acabará en el presente ejercicio, siempre que dicho periodo no sea superior al plazo de prescripción. Si tal periodo excede del plazo de prescripción, sólo se liquidará el IBI correspondiente a los años no prescritos.

5. La base liquidable se determinará aplicando las reducciones legales, cuya cuantía será fijada y comunicada por la Diputación Foral de Gipuzkoa.

6. Los sujetos pasivos están obligados a presentar declaraciones de alta, baja o variación cuando las alteraciones de los bienes tengan transcendencia para la liquidación del impuesto.

No obstante, cuando la Escritura que formaliza una transmisión de dominio haya sido otorgada por un Notario que hubiera convenido con el Ayuntamiento el traslado de información sobre modificaciones dominicales, el titular quedará liberado de su obligación de presentar declaración.

7. A los efectos previstos en el apartado anterior, el Ayuntamiento convendrá con los Notarios el procedimiento para conocer puntualmente las variaciones de propiedad de los inmuebles.

8. Notariaren jakinarazpena erabiliko da Ondasun Higiezinen Erroldan titularraren izena aldatzeko eta hiri izaerako lur-eremuen balioaren igoeraren gaineko Zerga likidatzeko.

9. Aurreko 4. eta 5. puntuetan zehazturikoez gainera, Udalak Notari, Erregistratzaile edo legezko interesa aurkezten dutenei erraztu egingo die, ahalik eta modurik arinenean, Ondare Higiezinen gaineko eta kitatu gabeko Zerga-zorren jakinarazpena, transmititu nahi den ondareari dagokiona.

Hori guzti hori Ondare Higiezinen gaineko Zergaren 12/1989 Foru Arauaren 17. artikuluan xedaturiko arduraren irismenaren berri emateko xedean.

10. Erroldan azaldu behar diren zerga- kuotak zehazterakoan, Udalak onarturiko ezarpen-tasak aplikatuko dira eta, hala behar badu, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorren Foru Arauak onarturiko katastroaren balioak eguneratzeko koefizientea. Ez da zertan aldaketa horien jakinarazpen indibiduala egin beharrik, aldaketa horiek arauz tramitaturiko Ordenantza Fiskalen eta nahitaez eta izaera orokorrez aplikatu beharreko Foru Arauaren ondorio baitira.

8. La comunicación notarial servirá para cambiar la titularidad en el padrón del IBI y para liquidar el Impuesto sobre incremento del valor de los terrenos de naturaleza urbana.

9. Sin perjuicio de lo establecido en los puntos 4 y 5 anteriores, el Ayuntamiento facilitará, por el medio más rápido posible, a los Notarios, Registradores, o a quienes aleguen un interés legítimo, certificación de las deudas pendientes por IBI, correspondiente al bien que se desea transmitir.

Todo ello en orden a informar sobre el alcance de la responsabilidad dimanante de lo previsto en el artículo 17 de la Norma Foral 12/1989, del Impuesto sobre Bienes Inmuebles.

10. A efectos de determinar las cuotas tributarias que deben figurar en el Padrón, se aplicarán los tipos impositivos aprobados por el Ayuntamiento y, en su caso, el coeficiente de actualización de valores catastrales aprobado por Norma Foral de Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa. No será preciso proceder a la notificación individualizada de tales modificaciones puesto que las mismas proceden de la Ordenanza Fiscal reglamentariamente tramitada y de la una Norma Foral de general y obligatoria aplicación.

27. artikulua. Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga.

1. Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren errolda fiskala aurreko urteko erroldan oinarrituta zehaztuko da, eta aurreko ekitaldian sortutako altak eta beste aldaketak (transferentziak, helbide aldaketak eta bajak), Udalak ezagutzen dituenak, jasoko dira errolda fiskal horretara.

2. Herrialdeko Trafiko Erregistroan ibilgailuaren titular gisa ageri den pertsona fisiko edo juridikoa izango da zergaren aurreko subjektu pasiboa, bereziki egiaztatzen ez badu ibilgailu hori zergak ukitzen duen ekitaldiaren lehen eguna baino lehen transmititu zuela eta transmisio egileak ibilgailuaren salmentaren berri Trafiko Sailari jakinarazi ziola.

3. 1989ko 14/1989 Foru Arauaren 4. artikuluak zehazten dituen Tarifak zehazterakoan, Zirkulazio Kodearen 260. artikuluan zehazturiko formularen aplikaziotik etorririko potentziaren munta hartuko da ibilgailuaren potentziatzat, hori guzti hori 1990eko 49/1990 Foru Dekretuaren 3. Arauak xedaturikoaren arabera.

Artículo 27. Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica

1. El padrón fiscal del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica se formará en base al padrón del año anterior, incorporando las altas y los efectos de otras modificaciones (transferencias, cambios de domicilio y bajas) originadas en el ejercicio inmediatamente anterior, y de las que el Ayuntamiento tenga conocimiento.

2. Será sujeto pasivo del impuesto la persona física o jurídica que figure como titular del vehículo en el Registro Provincial de Tráfico, salvo que se acredite fehacientemente que el vehículo fue transmitido antes del día primero del ejercicio a que se refiere el tributo exigido y que el transmitente comunicó a Tráfico la venta del vehículo.

3. A efectos de determinar las Tarifas a que se refiere el art. 4 de la Norma Foral 14/1989 se considerará potencia del vehículo la resultante de aplicar la fórmula establecida por el art. 260 del Código de la Circulación, ello de conformidad con la Regla 3.ª del Decreto Foral 49/1990.

4. Ordenantza Fiskalean onartutako igoeraren koefizientea aplikatuko da aurreko atalean azalduriko tarifen gaineko erroldan adieraziriko den zerga-zorra zehazterakoan.

5. Ez da zertan igoeraren koefizientearen aldaketak eragindako aldaketen edo Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorren Foru Arauek zehazturiko koadroan eginiko aldaketen jakinarazpen indibiduala egin beharrik, izan ere, legez tramitaturiko Ordenantza Fiskalean eta nahitaez eta izaera orokorrez aplikatu beharreko Foru Arauaren ondorio dira aldaketa horiek.

6.Eskuraturiko lehenengo ibilgailua den kasuetan, norberak likidatu beharreko erregimena eskatuko da. Halaber, erregimen horren araberako zerga eskatuko da ibilgailu baten birgaitzea dagokion baja tramitatu ondoko ekitaldietan egiten denean. Udal bulegoetan edo banku erakunde laguntzaileen bulegoetan egingo dira diru-sarrerak.

4. Para obtener la deuda tributaria que constará en el padrón, sobre las tarifas citadas en el punto anterior se aplicará el coeficiente de incremento aprobado en la Ordenanza Fiscal.

5. No será preciso proceder a la notificación individualizada de las modificaciones originadas por variación del coeficiente de incremento o, del cuadro de tarifas por Norma Foral de Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa, ya que las mismas proceden de la Ordenanza Fiscal reglamentariamente tramitada y de una Norma Foral de general y obligatoria aplicación.

6. En los supuestos de primeras adquisiciones de vehículos el impuesto se exigirá en régimen de autoliquidación. Igualmente, se exigirá el impuesto en este régimen en el supuesto de rehabilitación de un vehículo cuanto ésta se realice en ejercicios posteriores al de tramitación de la correspondiente baja. El ingreso se podrá efectuar en las oficinas municipales o en las entidades bancarias colaboradoras.

28. artikulua. Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga.

Artículo 28. Impuesto sobre Actividades Económicas

1.Foru Aldundiak taxutuko du Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergen Matrikula, eta azken urte naturalean zehar gertaturiko aldaketak jasoko ditu hartara.

2. Foru Administrazioak osaturiko zergapekoen Matrikulan oinarrituta taxutuko da Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren errolda fiskala, eta Udalak ezagutzen dituen egintza edo gertaeren ondorioz sorturiko aldaketak jasoko dira hartara.

3. Foru Aldundiak zehazturiko gutxieneko kuotei dagokienez, 1993ko 1/1993 Foru Dekretu Arauemailearen (Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren Testu Bateratua onartzen duena) 11. eta 12. artikuluek baimentzen dutenaren babesean Udalak onarturiko igoeraren koefizientea eta egoera-indizeak aplikatuko dira.

4. Aurreko atalean adieraziriko koefizienteen aldaketak zerga-kuotan eragindako aldaketak, edo Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorren Foru Arauak zergen Tarifari begira onarturiko aldaketak ez dira zertan banan-bana jakinarazi behar, izan ere, legez tramitaturiko Ordenantza Fiskalean eta nahitaez eta izaera orokorrez aplikatu beharreko Foru Arauaren ondorio dira aldaketa horiek.

1. La Matrícula del Impuesto sobre Actividades Económicas se elaborará por la Diputación Foral e incorporará las alteraciones producidas durante el último año natural.

2. El padrón fiscal del Impuesto sobre Actividades Económicas se elaborará en base a la Matrícula de contribuyentes formada por la Administración Foral e incorporará las alteraciones consecuencia de hechos o actos conocidos por el Ayuntamiento.

3. Sobre las cuotas mínimas, fijadas por la Diputación Foral, se aplicarán el coeficiente de incremento e índices de situación, aprobados por el Ayuntamiento al amparo de lo que autorizan los artículos 11 y 12 del Decreto Foral Normativo 1/1993, por el que se aprueba el Texto Refundido del Impuesto sobre Actividades Económicas.

4. Las variaciones en la cuota tributaria originadas por modificación de los coeficientes referidos en el punto anterior, o por variación de las Tarifas del impuesto aprobadas por Norma Foral de Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa, no precisarán de notificación individualizada, ya que las mismas proceden de la Ordenanza Fiscal reglamentariamente tramitada y de una Norma Foral de general y obligatoria aplicación.

29. artikulua. Tasak.

1. Aurreko ekitaldiko erroldan oinarrituta taxutuko dira errolda berriak. Errolda berrira jasoko dira Ordenantza Fiskalean onartutako tarifen aldaketetatik etorririko gora-beherak eta zerga-zorra zehazten duten funtsezko elementuen aldaketa ekartzen ez dituzten eta Udalak ezagutzen dituen beste alderdiak.

2. Ordenantza Fiskalean jasotako tarifen aldaketak zerga-kuotan eragindako gora- beherak ez dira zertan banan-bana jakinarazi behar, izan ere, Ordenantza hori jendaurrera eramaten da eta legez tramitatzen da.

Artículo 29. Tasas

1. Los padrones se elaborarán en base al padrón del ejercicio anterior, incorporando las modificaciones derivadas de la variación de tarifas aprobadas en la Ordenanza Fiscal, así como otras incidencias que no constituyan alteración de los elementos esenciales determinantes de la deuda tributaria y que fueran conocidas por el Ayuntamiento.

2. Las variaciones en la cuota tributaria originadas por modificación de las tarifas contenidas en la Ordenanza Fiscal no precisan de notificación individualizada, en cuanto dicha Ordenanza ha sido expuesta al público y tramitada reglamentariamente.

30. artikulua. Errolden onarpena.

1. Errenta Bulegoak osatuko ditu erroldak eta Fondoen Kontuhartzailetzak fiskalizatu eta erasoko ditu.

2. Alkatetza-Lehendakaritzak du erroldei onarpena emateko eskuduntza.

3. Aurreko atalean zehazturiko erabakia hartu ondoren kontabilizatuko da eskubideen onarpena.

4. Aldizkako epemuga duten zerga batzuk ordaintzeko epeek bat egiten dutenean, ordainagiri bakar batez eskatu ahal izango da kuoten ordainketa, baina behar bezala bereizirik azalduko dira sarreren kontzeptuak.

Zergak batera aurkezten direnean interesatuak ez du zertan ordainagiriko kopurua aldi batean ordaindu beharrik. Zerga- bilketarako Udal Bulegoan ordainketa partziala onartuko da kontzeptu bat edo batzuei dagokien kuota kitatzen badu.

Artículo 30. Aprobación de padrones.

1. Los padrones los elaborará la Oficina de Rentas la verificación de los mismos y a la Intervención de Fondos su fiscalización y toma de razón.

2. La aprobación de los padrones es competencia de la Alcaldía-Presidencia.

3. La contabilización del reconocimiento de derechos tendrá lugar una vez haya recaído el acuerdo referido en el apartado anterior.

4. Cuando los periodos de cobro de diversos tributos de vencimiento periódico sean coincidentes, se podrá exigir el pago de las cuotas respectivas mediante un recibo único, en el que constarán debidamente separados los conceptos de ingreso.

En caso de agrupación de tributos, la persona interesada no estará obligada a pagar la totalidad del recibo en el mismo momento. En la Oficina Municipal de Recaudación se aceptará el pago parcial cuando cubra la cuota liquidada por uno o varios conceptos.

31. artikulua. Egutegi fiskala.

1. Izaera orokor batez, honako hauek izango dira zergak ordaintzeko epeak:

Urtean behin ordaindu beharrekoak:

a) Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga:

Martxoare3tik apirilaren 11ra arte.

b) Ondasun Higiezinen gaineko zerga:

Artículo 31. Calendario fiscal.

1. Con carácter general, se establece que los periodos para pagar los tributos de carácter periódico serán los siguientes:

Tributos de periodicidad anual:

a) Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica:

Desde el día 3 de marzo al 11 de abril.

b) Impuesto sobre Bienes Inmuebles:

Maiatzaren 15etik ekainaren 30era.	*Desde el día 15 de mayo al 30 de junio.*
c) Ibilgailuak finka hiritarretan sartzeko sarrera.	*c) Entrada de vehículos en fincas urbanas:*
Urriaren 1etik azaroaren 10era.	*Desde el día 1 de octubre hasta el 10 de noviembre.*
d) Pasabideak:	*d) Vados:*
Urriaren 1etik azaroaren 10era.	*Desde el día 1 de octubre hasta el 10 de noviembre.*
e) Jarduera Ekonomikoaren gaineko Zerga:	*e) Impuesto sobre Actividades Económicas:*
Urriaren 1etik azaroaren 10era.	*Desde el día 1 de octubre hasta el 10 de noviembre.*
f) Hilerria:	*f) Cementerio*
Urriaren 1etik azaroaren 10era.	*Desde el día 1 de octubre hasta el 10 de noviembre.*
g) Kutxazainak:	*g) Cajeros:*
Urriaren 1etik azaroaren 10era.	*Desde el día 1 de octubre hasta el 10 de noviembre.*
h) Denden bide okupazioa:	*h) Ocupación vía pública de tiendas:*
Urriaren 1etik azaroaren 10era.	*Desde el día 1 de octubre hasta el 10 de noviembre.*
i) Baratzak:	*i) Huertas:*
Urriaren 1etik azaroaren 10era.	*Desde el día 1 de octubre hasta el 10 de noviembre.*
j) Azoka (baserritarrak):	*j) Mercado (baserritarrak):*
Urriaren 1etik azaroaren 10era.	*Desde el día 1 de octubre hasta el 10 de noviembre.*
Sei hilean behin ordaindu beharreko tasak:	***Tributos de periodicidad semestral:***
k) Zabor bilketa:	*k) Recogida de basura:*
1. seihilekoa: otsailaren 14tik martxoaren 14ra.	*1º semestre: Desde el día 14 de febrero hasta el día 14 de marzo.*
2. seihilekoa: irailaren 15etik urriaren 15era.	*2º semestre: Desde el día 15 de septiembre hasta el día 15 de octubre.*
Hiru hilean behin ordaindu beharreko tasak:	***Tributos de periodicidad trimestral:***
l) Azoka:	*l) Mercado:*
1. hiruhilekoa: urtarrilaren 15etik otsailaren 28a.	*1º trimestre: Desde el día 15 de enero hasta el día 28 de febrero.*

2. hiruhilekoa: apirilaren 11tik maiatzaren 30era.	*2º trimestre: Desde el día 11 de abril hasta el día 30 de mayo.*
3. hiruhilekoa: uztailaren 15etik abuztuaren 29ra.	*3º trimestre: Desde el día 15 de julio al día 29 de agosto.*
4. hiruhilekoa: urriaren 15etik azaroaren 28ra.	*4º trimestre: Desde el día 15 de octubre al día 28 de noviembre.*
Hilero ordaindu beharrekoak	***Periodicidad mensual:***
m) Etxez etxeko laguntza: Hilero – Hilaren 24 - 30 artean.	*m) Servicio ayuda a domicilio:* Mensual – entre el 24 y 30 de cada mes.
n) Eguneko zentrua Hilero – Hilaren 24 - 30 artean.	*n) Centro de día* Mensual – entre el 24 y 30 de cada mes.
o) Alokairuak (garajeak) Hilero – Hilaren 24 - 30 artean.	o) Alquileres (garajes) Mensual – entre el 24 y 30 de cada mes.

Aurreko ataleko puntuetan (salbu b eta e) zehaztutako ordainketa-epeei begira gerta litezkeen aldaketak Alkatetza-Lehendakaritzak onartuko ditu, eta ez da ordainketak egiteko luzamendurik onartuko guztiz ezohiko kasua ez bada.

Las variaciones en los periodos de pago reseñados en los apartados del punto anterior (salvo b y e) serán aprobadas por la Alcaldía-Presidencia, no admitiéndose la prórroga de los mismos salvo que concurran circunstancias excepcionales.

Tributuen gaineko hobariak eta salbuespenak eskatzeko epeak ondorengoak izango dira eta gerta litezkeen aldaketak Alkatetza-Lehendakaritzak onartuko ditu.

Los plazos para solicitar las bonificaciones y exenciones tributarias serán las siguientes y sus variaciones será aprobadas por la Alcaldía-Presidencia.

Kontzeptua ***Concepto***	**Eskaera epea** ***Plazo de solicitud***
Ondasun higiezinen zerga. Famili ugarien hobaria *Impuesto Bienes Inmuebles. Bonificación familias numerosas.*	*Abenduak 1-urtarrilak 31* *1 de diciembre-31 de enero*
Ondasun higiezinen zerga. Energiaren aprobetxamendu *Impuesto Bienes Inmuebles. Aprovechamiento con energía*	*Abenduak 1-urtarrilak 31* *1 de diciembre-31 de enero*
Ibilgailuen zerga. Famili ugarien hobaria *Impuesto de vehículos: Bonificación familias numerosas.*	*Abenduak 1-urtarrilak 31* *1 de diciembre-31 de enero*
Ibilgailu historikoen hobaria Bonificación vehículos históricos	*Abenduak 1-urtarrilak 31* *1 de diciembre-31 de enero*
Motor elektrikoa duten ibilgailuen hobaria *Bonificación vehículo de motor eléctrico.*	*Abenduak 1-urtarrilak 31* *1 de diciembre-31 de enero*
Ibilgailu hibridoen hobaria *Bonificación vehículos híbridos.*	*Abenduak 1-urtarrilak 31* *1 de diciembre-31 de enero*
Gasarekin dabiltzan Ibilgailuen hobaria	*Abenduak 1-urtarrilak 31*

Bonificación vehículos gas.	*1 de diciembre-31 de enero*
Hondakinen bilketaren tasa. Hobariak.	*Abenduak 1-urtarrilak 31*
Tasa de recogida de basuras. Bonificaciónes	*1 de diciembre-31 de enero*

32 artikulua. Jendaurrera eramatea.

1. Egutegi fiskalaren berri edukitzean, Alkatetza-Lehendakaritzak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko ediktu- taulan iragarkiak argitara emateko agindua emango du.

2. Errolda fiskalak, ordaindu beharreko kuotak eta kuotak zehazten dituzten zerga- elementuak barne, hiritarren eskura egongo dira udal bulegoetan 15 egunez eta ordaintzeko epeak hasi baino lehen edo aldi berean.

3. Kuotek eta beste zerga-elementuek ez dutenez altarik osatzen dagokien erregistroetan, subjektu pasiboari jada jakinaraziriko ekintza zergagarri bat osatzen baitute, kuota eta zerga horiek batera jakinaraziko dira, Zergen gaineko Foru Arau Orokorraren 98.3. artikuluan xedaturikoaren arabera.

4. Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu baino lehen, Berraztertzeko errekurtsoa tartekatu daiteke erroldak jendaurrera eramatearen aurka eta bertara jasoriko likidazioen aurka. Errekurtsoa errolda jendaurrera eramateko epea amaitzen denetik hasita hilabeteko epean aurkez daiteke.

33. artikulua. Ordainketak egiteko iragarkiak.

1.Aurreko artikuluak arauturiko egutegi fiskalaren iragarkiak, erroldak jendaurrera eramaten direla jakinarazteaz gainera, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga- Bilketaren Arautegiaren (aurrerantzean GLHko Zerga-Bilketaren Arautegia) 18. artikuluak hizpide duen ordainketarako iragarkia argitaratzeko funtzioa du.

Helburu horiek bete daitezen, honako alderdi hauek zehaztu ere behar dira:

a) Ordaintzeko erak: erabilera legaleko diruarekin edo Udalaren aldeko txeke izendunarekin, txekea ematen den egun berean izenpetua baldin badago edo eman aurretiko zazpi egun naturalen barruan izenpetua baldin badago.

Artículo 32. Exposición pública.

1. Conocido el calendario fiscal, la Alcaldía-Presidencia ordenará su publicación, mediante anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, y en el tablón de edictos del Ayuntamiento.

2. Los padrones fiscales, conteniendo las cuotas a pagar y los elementos tributarios determinantes de las mismas, se expondrán al público en las oficinas municipales con anterioridad o simultáneamente al inicio de los respectivos periodos de cobro, y por un periodo de 15 días.

3. Las cuotas y demás elementos tributarios en cuanto no constituyen altas en los respectivos registros, sino que hacen referencia a un hecho imponible ya notificado individualmente al sujeto pasivo, serán notificadas colectivamente, al amparo de lo que prevé el art. 98.3 de la Norma Foral General Tributaria.

4. Contra la exposición pública de los padrones, y de las liquidaciones en los mismos incorporadas, se podrá interponer recurso de reposición, previo al contencioso- administrativo, en el plazo de un mes a contar desde la fecha de finalización del periodo de exposición pública del padrón.

Artículo 33. Anuncios de cobranza.

1.El anuncio del calendario fiscal regulado en el artículo anterior podrá cumplir, además de la función de dar a conocer la exposición pública de padrones, la función de publicar el anuncio de cobranza a que se refiere el art. 18 del Reglamento de Recaudación del Territorio Histórico de Gipuzkoa (en adelante, Reglamento de Recaudación del THG).

Para que se cumpla tal finalidad deberán constar también los siguientes extremos:

a) Medios de pago: dinero de curso legal o cheque nominativo y conformado a favor del Ayuntamiento, fechado en el mismo día o en los siete días naturales anteriores a aquél en que se efectúe su entrega.

b) Borondatezko ordainketak egiteko zehaztutako epeak amaituta, zorrak premiamendu bidez eskatuko direla, zor horiek premiamendu-errekargua sortuko dutela, borondatezko epea amaitu ondoko egunetik hasita zenbatutako berandutze-interesak barne eta, hala behar badu, beste kostu batzuk sor litezkeela ohartaraziko da

c) Premiamendu-probidentzia jakinarazi baino lehen, zordunak ordaindu egiten baldin badu ordaintzeko epean ordaindu ez duen zerga-zorra, ehuneko 5ekoa izango da errekargua, eta ez zaio berandutze-interesik eskatuko.

b) Advertencia de que transcurridos los plazos señalados como periodos de pago voluntarios, las deudas serán exigidas por el procedimiento de apremio y devengarán el recargo de apremio, los intereses de demora computados desde el día siguiente al vencimiento del periodo voluntario hasta la fecha de su ingreso y, en su caso, las costas que se produzcan.

c) Advertencia de que cuando la deuda tributaria no ingresada se satisfaga antes de que haya sido notificada al deudor la providencia de apremio, el recargo será del 5 por 100 y no se exigirán los intereses de demora.

34. artikulua. Altengatiko likidazioak.

1. Aldizka ordaintzen diren zergei dagokienez, dagokion erregistroan alta bat sortuko duen zuzeneko sarreraren likidazioa egingo da honako kasu hauetan:

a) Ordaintzeko betekizuna eragin dezaketen gertaerak edo ekintzak lehenengoz gertatu direnean.

b) Udalak lehenengo aldiz duenean gertaera zergagarri baten berri, baina zerga ezarri baino lehen gertatu denean, eta legozkiokeen zigorren kalterik gabe.

c) Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorren Foru Arauetan izaera orokorrez onarturiko zergen funtsezko elementuetan bestelako aldaketak sortu direnean eta Ordenantza Fiskaletan zehazturiko ezarpen-tasak aldatzen direnean.

2. Artikulu honek arautzen dituen likidazioen onarpenari eta jakinarazpenari dagokienez, ondoko Sekzioan arauturiko erregimen orokorra aplikatuko da.

3. Dagokion erroldan alta eman ondoren, ediktuen bidez eta batera jakinaraziko dira ondoz ondoko likidazioak.

Artículo 34. Liquidaciones por altas.

1. En relación a los tributos de cobro periódico se practicará liquidación de ingreso directo que generará un alta en el correspondiente registro, en estos casos:

a) Cuando por primera vez han ocurrido los hechos o actos que pueden originar la obligación de contribuir.

b) Cuando el Ayuntamiento conoce por primera vez de la existencia del hecho imponible, no obstante haberse devengado con anterioridad el tributo y sin perjuicio de las sanciones que pudieran corresponder.

c) Cuando se han producido modificaciones en los elementos esenciales del tributo distintas de las aprobadas con carácter general en la Norma Foral de Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa y de la variación de tipos impositivos recogida en las Ordenanzas Fiscales.

2. En cuanto a la aprobación y notificación de las liquidaciones a que se refiere este artículo, será de aplicación el régimen general regulado en la Sección siguiente.

3. Una vez notificada el alta en el correspondiente padrón, se notificarán colectivamente las sucesivas liquidaciones mediante edictos.

2. SEKZIOA. Aldizkakoa ez den epemuga

SECCIÓN 2.ª De vencimiento no periódico

35 artikulua. Likidazioen jarduera.

1. Ordenantza Fiskaletan arauturiko terminoetan, eta dagozkion ezarpen-tasak eta kuotak aplikaturik, zuzeneko diru-sarreren bidezko likidazioak egingo dira autolikidaziorik aurkezten ez denean eta Udalak honako zerga hauen eraginaren baitara biltzen den gertaera zergagarriaren berri duenean:

Artículo 35. Práctica de liquidaciones.

1. En los términos regulados en las Ordenanzas Fiscales, y mediante aplicación de los respectivos tipos impositivos y cuotas, se practicarán liquidaciones de ingreso directo cuando, no habiéndose presentado la autoliquidación, el Ayuntamiento conoce de la existencia de hecho imponible por los siguientes

tributos:

a) Hiri Izaerako Lur-eremuen Balioaren Igoeraren gaineko zerga.

a) Impuesto sobre el Incremento de Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana.

b) Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko zerga.

b) Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras.

c) Zerga bereziak.

c) Contribuciones especiales.

d) Tasak, zerbitzua lehen aldiz edo behin bakarrik eskatu denean.

d) Tasas, en los supuestos de primera o única solicitud de servicios.

e) Tasak, erabilera pribatiboa izateko lehen aldiz edo behin bakarrik eskatu denean edo jabari publikoko probetxamendu berezirako eskatu denean.

e) Tasas, en los supuestos de primera o única solicitud de utilización privativa o aprovechamiento especial de dominio público.

2. Aurreko puntuan aipatzen diren likidazioak Errenta Bulegoak bideratuko ditu eta Kontuhartzailetzak fiskalizatuko ditu.

2. Las liquidaciones a que se refiere el punto anterior serán practicadas por la Oficina de Rentas y fiscalizadas por la Intervención.

3. Alkatetza-Lehendakaritzak, edo honek izenda dezakeen ordezkaritzak du likidazioei onarpena emateko eskuduntza. Horretarako zerga-elementuen zerrenda-laburpena taxutuko da, eta bertan Kontuhartzailetzaren erasoa adieraziko da.

3. La aprobación de las liquidaciones compete a la Alcaldía-Presidencia, sin perjuicio de las delegaciones que pudiera conferir, a cuyos efectos se elaborará una relación resumen de los elementos tributarios, en la que deberá constar la toma de razón de la Intervención.

4. Aurreko atalean zehazturiko erabakia hartu ondoren kontabilizatuko da eskubideen onarpena.

4. La contabilización del reconocimiento de derechos tendrá lugar una vez haya recaído el acuerdo de aprobación referido en el punto anterior.

5. Ofiziozko behin-behineko Likidazioak agindu ahal izango dira udal bulegoetan dauden froga-elementuek agerian uzten dutenean gertaera zergagarri bat jazo dela edo adierazitakoa ez bezalako zerga-zorra dagoelako elementu argigarriak daudenean.

5. Se podrán dictar Liquidaciones provisionales de oficio cuando los elementos de prueba que obren en las dependencias municipales, pongan de manifiesto la realización del hecho imponible o la existencia de elementos determinantes de la cuantía de la deuda tributaria, distintos de los declarados.

36 artikulua. Adierazpenen aurkezpena.

Artículo 36. Presentación de declaraciones.

1. Subjektu pasiboek legez ezarririko adierazpenak aurkezteko betebeharra dute, eta arau-hauste arintzat joko da betebehar hori ez betetzea.

1. Los sujetos pasivos están obligados a presentar las declaraciones establecidas legalmente, constituyendo el incumplimiento de tal obligación infracción simple.

Likidazioak egiteko beharrezkoak diren adierazpenak epez kanpora aurkezten badira, Ordenantza honen 94. artikuluan zehazturiko errekarguak aplikatuko dira.

En el caso de liquidaciones resultantes de declaraciones necesarias para la práctica de las mismas, presentadas fuera de plazo, se aplicarán los recargos previstos en el artículo 94 de esta Ordenanza.

2. Epez kanpora eta behar ez bezala edo osatu gabe aurkezturiko adierazpenak behar- beharrezkoak direnean autolikidazioa eskatzen ez duten zergen likidazioa burutzeko, arau-hauste larritzat joko da adierazpenok aurkezteko betebeharra ez betetzea.

3. Udal Zerbitzuek egiaztatuko dute aurreko ataletan zehazturiko betebeharren ez betetzea, eta zigorra ezarri ahal izango da Ordenantza honen V. Tituluaren II. Kapituluan xedatutakoaren arabera.

4. Aurreko ataletan zehaztutakoaz gainera, Errenta Bulegoak eta, hala behar badu, Ikuskaritza Zerbitzuak, aurreko artikuluan aipaturiko zergak sortzen dituzten gertaera zergagarrien berri ezagutzeko bideak ezarriko dituzte.

Hartara, Notarioen, Jabetza Erregistratzaileen, Ondareen Transmisioaren gaineko Zergak Likidatzeko Bulegoen eta Dokumentaturiko Ekintza Juridikoen informazioa bilduko da, beste udal bulegoetan jasoriko informazioa biltzeaz gainera; hori guzti hori, jabarien transmisioen, obren edo zergagarriak diren beste elementuen berri izatearren.

3. SEKZIOA. Jakinarazpen administratiboak

37 artikulua. Zuzeneko diru-sarreren bidezko likidazioen jakinarazpena.

1. Zerbitzuak eskaintzeagatiko, edo jabari publikoa era berezian edo era pribatiboan erabiltzeagatiko tasen likidazioak, ahal den guztietan eskaera egin duen hiritarrari berari jakinaraziko zaio.

2. 1 atalean aurreikusiriko zuzeneko diru-sarreren bidezko likidazioak ez bezalakoak jakinarazteko, jakinarazpen- dokumentu bat igorriko da, eta honako alderdi hauek jasoko dira bertara:

a) Likidazioaren oinarrizko elementuak.

b) Aurka egiteko bitartekoak, errekurtsoak tartekatzeko epeak, errekurtsoak aurkezteko lekuak eta organoak.

c) Zerga-zorra kitatzeko lekua, epea eta modua.

2. Cuando las declaraciones presentadas fuera de plazo, de forma incompleta o incorrecta, sean documentos necesarios para la práctica de liquidación de los tributos que no se exigen por autoliquidación, el incumplimiento de la obligación de declarar constituye infracción grave.

3. Por los Servicios Municipales se verificará el incumplimiento de las obligaciones relacionadas en los puntos anteriores, y se podrá imponer sanción de acuerdo con lo previsto en el Capítulo II del Título V de esta Ordenanza.

4. Sin perjuicio de lo previsto en los apartados anteriores, la Oficina de Rentas y el Servicio de Inspección, en su caso, establecerán los circuitos para conocer de la existencia de hechos imponibles que originen el devengo de los tributos referidos en el artículo anterior.

Con esta finalidad, se recabará información de Notarios, Registradores de la Propiedad, Oficinas Liquidadoras del Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados, así como de otras dependencias municipales; todo ello en orden a conocer las transmisiones de dominio, la realización de obras, o la existencia de diferentes elementos con transcendencia tributaria.

SECCIÓN 3.ª Notificaciones administrativas

Artículo 37. Notificación de las liquidaciones de ingreso directo.

1. En los supuestos de liquidaciones de tasas por prestación de servicios, o por autorización para utilizar privativamente o aprovechar especialmente el dominio público, siempre que sea posible se notificará personalmente a la persona que presente la solicitud.

2. Para notificar otras liquidaciones de ingreso directo diferentes a las previstas en el apartado 1), se expedirá un documento de notificación en el que deberán constar:

a) Elementos esenciales de la liquidación.

b) Medios de impugnación, plazos de interposición de recursos, lugares donde pueden ser presentados, y órgano ante el que pueden interponerse.

c) Lugar, plazo y forma en que debe ser satisfecha la deuda tributaria.

d) Zerga Administrazioak aldaketak egin baldin baditu subjektu pasiboak aurkezturiko adierazpeneko datuetan, egintza hau jakinarazten zaion hurrengo egunetik hasita hamar eguneko epea izango du subjektu pasiboak espediente administratiboa udal bulegoetan aztertzeko eta, espedientea aztertzeko ekitaldi horretan bertan, jasoriko aldaketa eragin duten egintzen eta elementu gehigarrien berri izateko.

2. Aurreko atalean deskribaturiko dokumentuak interesatuak jakinarazpenak jasotzeko zehazturiko helbidera igorriko dira, edo bere legezko edo borondatezko ordezkarien helbidera, horrelakorik izendatu baldin badu, edo, besterik ezean, udal artxiboetan jasotzen den helbidera.

3. Dokumentu horien berri emateko lehen saioaren ondorioz, honako hauek gerta litezke:

a) Jakinarazpena interesatuari helaraztea. Kasu honetan berriemaileak Udalari itzuli behar dio erreziboa jaso izanaren adierazpena, eta hartzailearen datuak, sinadura eta erreziboa jaso duen eguna zehaztuko dira hartan.

b) Jakinarazpena interesatua ez den pertsonari helaraztea. Kasu honetan jakinarazpenaren erantzule egiten den pertsonaren sinadura eta datuak adierazi behar dira erreziboa jaso izanaren adierazpenean.

c) Interesatuak edo haren ordezkariak jakinarazpenari uko egitea. Kasu honetan jakinarazpena helarazteko saioaren zirkunstantziak zehaztuko dira eta jakinarazpena egin dela ulertuko da, jardunbidearekin aurrera egiteko.

d) Jakinarazpena helaraztea ezinezkoa gertatzea. Kasu honetan berriemaileak erreziboa jaso izanaren adierazpen-txartelean azalduko du erreziboa interesatuari helarazteko ezintasunaren arrazoia eta berau helarazteko saioaren eguna eta ordua.

4. 3d) puntuan zehaztutako kasua baldin bada, jakinarazpen pertsonala egiteko saioa ustela gertatu bada, bigarren saio bat egingo da baina lehenengo saioa egin zen egun eta ordu desberdinetan. Bigarren saio honen emaitza 3. ataleko a), b), c) eta d) puntuen araberakoa izan daiteke, eta behar bezala adieraziko da erreziboa jaso izanaren adierazpenean. Adierazpen hori Udalari itzuliko zaio.

5. Edozein kasutan, Udalari itzuliriko erreziboa jaso izanaren adierazpena ikusirik, berriemailearen nortasuna ezagutzeko aukera egon behar du.

d) En el supuesto de que la Administración Tributaria haya modificado los datos consignados en la declaración por el sujeto pasivo, dispondrá de un plazo de diez días, contados a partir del siguiente a la notificación del acto en cuestión, para examinar el expediente administrativo, en las dependencias administrativas, a fin de ser informado en ese acto de examen del expediente, de los hechos y elementos adicionales que han motivado la modificación introducida.

2. Los documentos descritos en el punto anterior se dirigirán al domicilio señalado por la persona interesada para recibir notificaciones o al de sus representantes legales o voluntarios, si los hubiera designado y, en su defecto, al que constase en los archivos municipales.

3. Como consecuencia del primer intento de notificación puede suceder:

a) Que la notificación sea entregada a la persona interesada, en cuyo caso el notificador o notificadora debe retornar al Ayuntamiento el acuse de recibo conteniendo la identificación y firma del receptor/a y la fecha en que tiene lugar la recepción.

b) Que la notificación se entregue a persona distinta de las interesada, en cuyo caso deberán constar en el acuse de recibo la firma e identidad de la persona que se hace cargo de la notificación.

c) Que la persona interesada o su representante rechace la notificación, en cuyo caso se especificarán las circunstancias del intento de notificación y se tendrá por efectuada, siguiéndose el procedimiento.

d) Que no sea posible entregar la notificación, en cuyo caso el notificador o notificadora registrará en la tarjeta de acuse de recibo el motivo que ha imposibilitado la entrega, así como el día y hora en que ha tenido lugar el intento de notificación.

4. En el supuesto del punto 3d), relativo al intento de notificación personal con resultado infructuoso, se procederá a la realización de un segundo intento, en día y hora diferentes a aquellos en que tuvo lugar el primer intento. El resultado de este segundo intento puede ser igual al señalado en los apartados a), b), c), d) del punto 3 y del mismo deberá quedar la debida constancia en la tarjeta de acuse de recibo que será retornada al Ayuntamiento.

5. En todo caso, a la vista del acuse de recibo devuelto al Ayuntamiento, deberá ser posible conocer la identidad del notificador o notificadora.

6. Jakinarazpenetan azaldu egingo da behar izanez gero jakinarazpena interesatuari helarazteko bi saio pertsonal egingo direla eta, saioak ustelak izatera, ediktu-deialdia egingo dela interesatua udal bulegoetara aurkez dadin eta jakinarazpena jaso dezan. Halaber, espedientearen egoera ezagutzeko udal bulegoetan aurkezteko aukeraren berri emango da jakinarazpen horietan.

7. Hiri-gutunak direnean, Posta Zerbitzuak, udal berriemaileak edo enpresa espezializatuek helarazi ahal izango dute dokumentu-jakinarazpenaren materiala.

Beste Udalerrietan bizi diren hiritarrei zuzenduriko gutunak Posta Zerbitzuaren bidez igorriko dira.

38. artikulua. Aldizkako epemuga duten zergen likidazioen jakinarazpena.

1.Kuotek eta beste zerga elementuek ez dutenean altarik osatzen dagokien erregistroetan, hau da, subjektu pasiboari jada jakinaraziriko ekintza zergagarri baten ondorio direnean, batera aurkeztuko dira, Zergen gaineko Foru Arau Orokorraren 98.3. artikuluak xedatzen duenaren arabera.

2. Aurreko atalean zehazten den jakinarazpen kolektiboak aldizkako epemugako zorren erroldan jasoriko likidazioak aurreikusten ditu.

3. Ordenantza honen 32. artikuluan arauturiko errolden erakusketa publikoa izango da dagozkion likidazioen jakinarazpen kolektiboa egiteko Udalak baliatuko duen bitartekoa.

39. artikulua. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

1. Aurreko artikuluko 3. puntuan aipatzen den jakinarazpen kolektiboa egiteko xedean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean emango da argitara erroldak jendaurrera eramateko eguna.

2. Zuzeneko diru-sarreren bidezko likidazioei dagokienez, 37. artikuluan ezarririko bi jakinarazpen-saioak ustelak gertatzen baldin badira, helbidetzat zehazturiko higiezinaren postontzian utziko da jakinarazpena. Jakinarazpen horretan dagokion egintzaren berri emango zaio interesatuari edo haren ordezkariari eta interesatua edo haren ordezkaria udal bulegoetan aurkezteko deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz jakinaraziko dela adieraziko da.

6. En las notificaciones se contendrá referencia al hecho de que, si fuere necesario, se practicarán dos intentos personales, y de resultar ambos infructuosos, se procederá a la citación edictal para ser notificado por comparecencia. Se indicará, asimismo, la posibilidad de personación en las oficinas municipales para conocer el estado del expediente.

7. Cuando se trate de cartas-urbanas, la entrega material del documento-notificación podrá realizarse por el Servicio de Correos, por notificador municipal o, por empresas especializadas.

Las cartas dirigidas a ciudadanos residentes en otros Municipios se remitirán por el Servicio de Correos.

Artículo 38 Notificación de las liquidaciones por tributos de vencimiento periódico.

1.Las cuotas y otros elementos tributarios cuando no constituyan altas en los respectivos registros, sino que hagan referencia a un hecho imponible ya notificado individualmente al sujeto pasivo, serán notificadas colectivamente, al amparo de lo previsto en el artículo 98.3 de la Norma Foral General Tributaria.

2. La notificación colectiva a que se refiere el apartado anterior afecta a las liquidaciones incluidas en los padrones de tributos de vencimiento periódico.

3. La exposición pública de los padrones regulada en el artículo 32 de esta Ordenanza, constituye el medio por el cual el Ayuntamiento realizará la notificación colectiva de las correspondientes liquidaciones.

Artículo 39. Publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

1. A efectos de practicar la notificación colectiva referida en el punto 3 del artículo anterior, se anunciará en el Boletín Oficial de Gipuzkoa la fecha de exposición pública de los padrones.

2. En cuanto a las liquidaciones de ingreso directo, de resultar infructuosos los dos intentos de notificación establecidos en el artículo 37, se dejará aviso en el buzón del inmueble señalado como domicilio, en el que se dará conocimiento a la persona interesada del acto correspondiente y de la subsiguiente publicación mediante edictos en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de citación a la persona interesada o a su representante para ser notificados por comparecencia.

3. Argitalpenean zehaztu egingo dira helarazi gabeko jakinarazpenak, subjektu pasiboa, nahitaezko zergapekoa edo ordezkaria, jakinarazpenak eragiten dituen jardunbidea, tramite bidera eramateko organo erantzulea eta jakinarazpena jasotzeko hartzaileak hamar eguneko epean aurkezteko lekua.

4. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitara eman ondoko egunetik hasita hamar eguneko epea igarota interesatua aurkeztu ez bada, interesatua aurkezteko zehazturiko epemuga amaituta ondoko egunetik hasita jakinarazpena egin dela ulertuko da legezko ondorio guztiei begira.

5. Alkatetza-Lehendakaritzak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkiak argitaratuta jakinarazpenak legezko eskubideak eta interesak kaltetu ditzakeela irizten badu, egintzaren edukiaren azalpen xehe bat argitara dadila aginduko du. Hartara, aldez aurretik zehaztuko den epean beti ere, espedientearen eduki osoa ezagutzeko interesatuek Udaleko zein bulegotara jo behar duten adieraziko da.

3. En la publicación constará la relación de notificaciones pendientes, sujeto pasivo, obligado tributario o representante, procedimiento que las motiva, órgano responsable de su tramitación y lugar donde el destinatario deberá comparecer en el plazo de diez días para ser notificado.

4. Cuando transcurrido el plazo de diez días, contados desde el siguiente al de la publicación del anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, no hubiere tenido lugar la comparecencia de la persona interesada, la notificación se entenderá producida a todos los efectos legales desde el día siguiente al del vencimiento del plazo señalado para comparecer.»

5. Si la Alcaldía-Presidencia apreciara que la notificación por medio de anuncios en el Boletín Oficial de Gipuzkoa puede lesionar derechos e intereses legítimos, ordenará que se publique una somera indicación del contenido del acto, señalando el lugar del Ayuntamiento donde las personas interesadas podrán comparecer, en el plazo que se establezca, para conocer el contenido íntegro del expediente.

4. SEKZIOA. Onura fiskalen onarpena

SECCIÓN 4.ª Concesión de beneficios fiscales

40 artikulua. Eskaera.

1. Zerga-salbuespenak, murrizketak edo bonifikazioak onartzeko edo ukatzeko, zerga bakoitzari dagokion araudi zehatza erabiliko da, eta ez da inolaz ere antzekotasuna onartuko salbuespen edo bonifikazioen esparruaren termino zehatzak areagotzeko.

2. Legeak bereziki kontrakorik adierazi ezean, erreguzko izaera du onura fiskalen onarpenak. Onura horiek, beraz, Alkatetza- Lehendakaritzari zuzenduriko instantziaren bidez eskatuko dira. Eskaerarekin batera Ordenantza Fiskalak agintzen duen dokumentazioa edo, arauturik izan ezean, eskaera egileak nahikoa irizten dion txostena aurkeztuko da.

3. Izaera orokor batez, ez du atzeraeraginik onura fiskalen onarpenak. Horrenbestez, onura fiskala onartzeko erabakia hartu ondoko zorretan eta ez aurrekoetan izango du ondorioa erabaki horrek, beti ere baldin eta dagokion ordenantza fiskalak bestelakorik arautzen ez duen bitartean.

4. Onura fiskala dagokion likidazioa finkoa izan baino lehen eskatzen denean, berau onartu ahal izango da zergaren sortzapen-egunean onura horretaz

Artículo 40. Solicitud.

1. La concesión o denegación de exenciones, reducciones o bonificaciones se ajustará a la normativa específica de cada tributo, sin que en ningún caso pueda admitirse la analogía para extender más allá de sus términos estrictos el ámbito de las exenciones o bonificaciones.

2. Salvo previsión legal expresa en contra, la concesión de beneficios fiscales tiene carácter rogado, por lo que los mismos deberán ser solicitados, mediante instancia dirigida a la Alcaldía-Presidencia, que deberá acompañarse de la documentación que en cada caso se establezca en las correspondientes Ordenanzas Fiscales, o, en ausencia de regulación, de la fundamentación que el solicitante considere suficiente.

3. Con carácter general, la concesión de beneficios fiscales no tendrá carácter retroactivo, por lo que sus efectos comenzarán a operar desde el momento en que por primera vez tenga lugar el devengo del tributo con posterioridad a la adopción del acuerdo de concesión del beneficio fiscal, siempre que la ordenanza fiscal correspondiente no regule lo contrario.

4. Cuando el beneficio fiscal sea solicitado antes de que la liquidación correspondiente adquiera firmeza podrá concederse siempre que en la fecha del devengo

baliatzeko gaitasuna ematen duten baldintzak betetzen badira.

5. Eskaera formulatzeko unean subjektu pasiboak ez baditu bere zerga izaerako betebeharrak bete, ukatu egingo zaio aldez aurretik eskatu eta pertsona fisiko edo erakunde bateko ordezkariari eman dakiokeen zerga-salbuespen, murrizketa edo bonifikazio edo onura fiskal, edo diru-laguntza eskuratzeko aukera. Bereziki arrazoi honetan oinarrituko da eskaerari ukoa emateko erabakia, eta halaxe jakinaraziko zaio interesatuari.

Arau honetatik salbuetsi ahal izango dira Osasun eta Gizarte Zerbitzu Arloak pobreziaren aurka borrokatzeko Planaren markoan onartutako laguntzak, aipatu Arloak aurrez txostena egin ondoren.

6. Epe mugatuan baliatzeko onartu diren onura fiskalak ezin aplikatuko dira onura horiek lortu dituen subjektu pasiboak hiru hilabetetik gora atzeratzen baldin baditu, erabat edo partzialki, ekitaldi horri dagozkion bere zerga izaerako betekizunak.

Betekizun hori urte bat baino luzaroagoan atzeratuko balitz, Administrazioak ofizioz jardungo luke onura horiek, interesatuak duen betekizunen bat betetzeari uzten dion unetik, baliogabetzeko. Interesatuak betekizun horiek urtebeteko epea amaituta betetzeak ez du esan nahi onura fiskalak baliorik gabe uzteko erabakia ondoriorik gabe utziko litzatekeenik.

7. Ordenantza honetako 25. artikuluan zehazturiko epeetan erabakiko da erreguzko izaera duten onura fiskalak onartzeko edo ukatzeko erabakia, eta eskaera aurkeztu zen egunetik hasita kontuan hartuko dira epe horiek. Epe horretan erabakirik hartzen ez bada, aurkeztutako eskaera ukatu egin dela ulertuko da.

8. Ofizioz onarturiko onura fiskalak direnetan, likidazioa egiteko unean aplikatuko dira onura horiek, baina horretarako gestio zerbitzuak eskura eduki behar du onura horietaz gozatzeko eskatzen diren baldintzak bete direlako informazioa.

5. SEKZIOA. Ikuskapen jardunbideak

41. artikulua. Arau orokorrak.

1. Zerga eta diru-bilketaren gestioaren esparruan erabakiriko egintzak ikuskatzeko eta egintzen baliogabetasuna ezartzeko aldarrikapena, indarrean dagoen araudiak xedatzen duenaren arabera bideratuko da.

del tributo concurran los requisitos que habilitan para su disfrute.

5. Se denegará toda solicitud de exención, reducción o bonificación tributaria o de beneficio fiscal en general, o de subvención, que puedan concederse a una persona física o entidad en forma individual y previa petición de la persona interesada, cuando el sujeto pasivo no está al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias en el momento de formularla. La resolución denegatoria se fundamentará expresamente en esta causa y se notificará en forma al interesado.

De esta norma podrán excepcionarse las ayudas aprobadas por el Área de Salud y Servicios Sociales, en el marco del Plan de lucha contra la pobreza, previo informe de la citada Área.

6. Los beneficios fiscales que se hayan concedido por tiempo limitado no serán aplicables al ejercicio en el cual el sujeto pasivo que los hubiere alcanzado se retrasase más de tres meses en el cumplimiento total o parcial de sus obligaciones tributarias.

Si este incumplimiento se prolongase por más de un año, la Administración procederá de oficio para cancelar, desde el momento que dejó de cumplir alguna de sus obligaciones, tales beneficios, sin que el posterior cumplimiento de las mismas pueda dejar sin efectos dicha cancelación.

7. El acuerdo de concesión o denegación de los beneficios fiscales de carácter rogado se adoptará en los plazos establecidos en el artículo 25 de esta Ordenanza, contados desde la fecha de la solicitud. Si no se dicta resolución en este plazo, la solicitud formulada se entenderá desestimada.

8. Cuando se trate de beneficios fiscales que han de otorgarse de oficio, se aplicarán en el momento de practicar la liquidación, siempre que el servicio gestor disponga de la información acreditativa de los requisitos exigidos para su disfrute.

SECCIÓN 5.ª Procedimientos de revisión

Artículo 41. Normas generales.

1. La revisión y declaración de nulidad de los actos dictados en materia de gestión tributaria y recaudatoria, se llevará a cabo de conformidad con lo que dispone la normativa vigente.

Ikuskapen hori ofiziozko Udalak bideratuko du edo, alde batek hala eskatzen duenean.

2. Ez dira sekula berrikusiko Epai finkoak berretsiriko egintza administratiboak.

3. Administrazioak berak egingo ditu, ohartzen denean edo interesatuak hala eskatzen duenean, huts materialen edo egiazko hutsen zuzenketak, beti ere preskripzio-epea igaro ez denean. Hori guzti hori Zergen gaineko Foru Arau Orokorraren 227. artikuluan xedaturikoari jarraiki.

Dicha revisión se podrá llevar a cabo por el Ayuntamiento de oficio o, a instancia de parte.

2. No serán en ningún caso revisables los actos administrativos confirmados por Sentencia firme.

3. La rectificación de errores materiales y de hecho se llevará a cabo por la Administración cuando los advierta, o cuando lo solicite la persona interesada, siempre que no hubiera transcurrido el plazo de prescripción, todo ello de conformidad con lo establecido en el artículo 227 de la Norma Foral General Tributaria.

42. artikulua. Berraztertzeko errekurtsoa.

1. Udal zergen gestioaren esparruan, interesatuek erroldei onarpena emateko, likidazioak onartzeko eta onura fiskalak onartzeko edo ukatzeko egintza administratiboen aurkako berraztertzeko errekurtsoa tartekatu dezakete erabaki horiek hartu dituen organoaren aurrean eta hilabeteko epean, jakinarazpena egin den egunetik edo dagozkion erroldak jendaurrera eramateko epea amaitu zen egunetik hasita.

Erregimen bera aplikatuko da, halaber, zerbitzuak eskaintzeagatiko prezio publikoen gestioari begira.

2. Gisa berean, dagokion berraztertzeko Errekurtsoaren bidez egin daiteke premiamendu-probidentziaren, bahitura bideratzearen, enkantearen onarpenaren eta zerga-bilketaren arduradunek bidera ditzaketen beste ekintzen aurka.

3. La o el particular que ocasiones daños en los bienes de uso o servicio públicos, vendrá obligado a su reparación.

Cuando las circunstancias del daño, o del bien afectado, lo aconsejen, será el Ayuntamiento quien proceda a la ejecución de las obras de reparación, exigiendo a la persona autora del daño el importe satisfecho.

Si el pago no se realiza en periodo voluntario, se exigirá en vía de apremio.

67. artikulua. Diru-laguntzen itzultzeak.

1. Udalak diru-laguntza bat ematen badu helburu jakin bati begira, eta diru horren aplikazioa ez bada egokiro justifikatu, diruaren helburua egiaztatu dadila eskatuko du Udalak.

2. Aplikazio okerra, erabatekoa edo partziala, egiaztatzen bada, diru-laguntza eman zen helburura bideratu ez den kopurua itzultzea eskatuko da. Diru itzultze hori ez bada zehazten den epean egiten, premiamendu-bidez eskatu ahal izango da kopuru hori.

3. Okerreko ordainketa bat egiten bada, hartzaileari dei egingo zaio, Kontuhartzailetzak egoeraren berri izan bezain laster, diru kopuru hori itzul dezan Kontuhartzailetzak zehazturiko baldintzetan. Betebehar honi erantzuten ez bazaio, premiamendu-bidez eskatuko da diruaren itzultzea.

Artículo 67. Reintegros de subvenciones.

1. Si el Ayuntamiento concediera una subvención finalista, cuya aplicación no ha sido correctamente justificada, exigirá que se acredite el destino de la misma.

2. Verificada la indebida aplicación, total o parcial, se requerirá el reintegro de la suma no destinada a la finalidad por que se concedió. Si tal reintegro no tiene lugar en el plazo que se señale, podrá ser exigido en vía de apremio.

3. En el supuesto de realización de un pago indebido, tan pronto como sea conocida tal situación por la Intervención, se requerirá a la persona perceptora para que reintegre su importe en el término que se señala. Si se incumpliese esta obligación, el reintegro se exigirá en vía de apremio.

68. artikulua. Isunak.

Artículo 68. Multas.

1. Hirigintza esparruko legerian edo udaltzaingoaren ordenantzetan xedatutakoak hausteagatik ezartzen diren isunak, Ordenantza honen IV. Tituluan arauturiko diru- bilketarako jardunbide orokorraren arabera ordainaraziko dira.

2. Preskripzio-epeei dagokienez, urtebetekoa da epe orokorra, baina kontzeptu bakoitzari begira taxuturiko araudi zehatzaren aplikazioa hartuko da kontuan.

69. artikulua. Zerga-bilketa.

1. Kapitulu honek aztergai duen Zuzenbide publikoko zergen kobrantza Udaleko Diruzaintzak bideratuko du.

2. Alkatetza-Lehendakaritzak banku erakundeen lankidetza baimendu ahal izango du. Kasu horretan, horren berri jakinaraziko zaio ordainketa egin behar duenari.

3. Ordainketa egin behar dutenek beren ondasun guztiekin, unean unekoekin eta etorkizunean izan ditzaketenekin, erantzungo diote ordainketari, beti ere Legeak xedatzen dituen mugen barnean.

4. Erantzukizun hau eskatuko zaie borondatezko edo legezko edozein tituluren jabe izateagatik zor horiek kitatu behar dituztenei. Erantzukizuna ordezkatzailea baldin bada eta zordun nagusiak bezala erantzule solidarioek ere huts egin dutela erabakitzen baldin bada, Udal Diruzaintzak proposatu eta Alkatetza-Lehendakaritzak erantzukizuna besteren esku uztea onartuko du.

1. Las multas que se impongan por infracción de lo dispuesto en la legislación urbanística o en las ordenanzas de policía municipal se exaccionarán por el procedimiento recaudatorio general regulado en el Título IV de esta Ordenanza.

2. En cuanto a plazos de prescripción, el plazo general es de un año, si bien habrá de estarse a lo que resulte de aplicación según la normativa específica de cada concepto.

Artículo 69. Recaudación.

1. La cobranza de los ingresos de Derecho público a que se refiere este capítulo se realizará por la Tesorería de la Corporación.

2. La Alcaldía-Presidencia podrá autorizar la colaboración de entidades bancarias, supuesto que, en su caso, se notificará a la persona obligada al pago.

3.Las y los obligados al pago responderán con todos sus bienes presentes y futuros, salvo las limitaciones establecidas por la Ley.

4. Esta responsabilidad se extenderá a quienes, por cualquier título legal o voluntario, vengan obligados a solventar dichas deudas. Si la responsabilidad es subsidiaria, una vez se hayan declarado fallidos el deudor principal y los responsables solidarios, por resolución de la Alcaldía-Presidencia se aprobará la derivación de responsabilidad, a propuesta de la Tesorería Municipal.

IV. TITULUA ZERGA-BILKETARAKO ARAUAK

TÍTULO IV. RECAUDACIÓN

I. KAPTITULUA. ANTOLAKETA

CAPÍTULO I. ORGANIZACIÓN

70. artikulua. Zerga-bilketarako organoak.

1. Zuzenbide publikoko udal zerga- kredituen eta gainerakoen bilketa gestioa Udalak berak bideratuko du zuzenean. Horretarako, Zerga-bilketarako Udal Zerbitzua sortu da, eta Udal Diruzaina izango da zerbitzu horren Burua.

2. Udal Kontuhartzailetzak eta diruzaintzak zehaztuko dituzte Zerga- bilketarako Udal Bulegoaren esku utzitako funtzioak garatu eta osatzeko jarraibide teknikoak.

Artículo 70. Órganos de recaudación.

1. La gestión recaudatoria de los créditos tributarios y demás de derecho público municipales se realizará directamente por el propio Ayuntamiento; con este fin se ha creado el Servicio de Recaudación Municipal, cuya Jefatura ostenta el Tesorero Municipal.

2. Corresponde a la Intervención y a la Tesorería Municipal dictar instrucciones técnicas para desarrollar y complementar las funciones atribuidas a la Oficina de Recaudación Municipal.

3. Premiamendu bidezko zerga- bilketarako jardunbidean, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga-bilketaren Arautegiak Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko organoei ematen dizkien eskuduntzak eta funtzioak udal organoei dagozkiela ulertuko da, hurrengo artikuluetan jasotzen den korrelazioaren arabera.

3. En el procedimiento de recaudación en vía de apremio, las competencias y funciones que el Reglamento de Recaudación del Territorio Histórico de Gipuzkoa asigna a los órganos del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuesto de la Diputación Foral se habrán de entender referidas a los órganos municipales, según la correlación que se indica en los artículos siguientes.

71.artikulua. Alkatetza-Lehendakaritzaren funtzioak.

Artículo 71. Funciones de la Alcaldía- Presidencia.

1. Alkatetza-Lehendakaritzaren zeregina izango da Ordenantza honek eta aplikatu beharreko beste arautegiek beste organo batzuen esku utzi ez dituen funtzio guztiak bideratzea, eginkizun horietako batzuk besteren esku utzi ahal izango baditu ere. Honako kasu hauetan jardungo du bereziki Alkatetza-Lehendakaritzak:

1. A la Alcaldía-Presidencia le corresponderá el ejercicio de todas las funciones no atribuidas a otros órganos por la presente Ordenanza y demás normativa aplicable, ello sin perjuicio de las delegaciones que pudiera conferir; con especial referencia a los siguientes supuestos:

a) Zorren ordainketa atzeratzea eta zatikatzea onartuko du, Diruzaintzak proposatuta.

a) Concesión de aplazamiento y fraccionamiento de deudas, a propuesta de la Tesorería.

b) Gatazka jurisdikzionalei buruzko legeriak zehazturikoaren arabera, eskuduntzen kontuak bultzatuko ditu Epaitegi eta Auzitegien aurrean premiamendu bidezko jardunbideak ezagutzen dituztenean administrazio bidea agortu gabe.

b) De conformidad con lo establecido en la legislación sobre conflictos jurisdiccionales, promoverá cuestión de competencias delante de los Juzgados y Tribunales cuando conozcan los procedimientos de apremio sin haber agotado la vía administrativa.

c) Dagokion Lehen Instantziako Epaileari baimen judiziala eskatuko dio zordunaren etxean sartu ahal izateko, erantzunak atzeratzen diren kasuetan.

c) Solicitud a la Jueza o Juez de Primera Instancia correspondiente de la autorización judicial para la entrada en el domicilio del deudor, en los supuestos de dilación en las contestaciones.

d) Bahituriko ondasunak lehiaketa edo zuzeneko esleipenaren bidez besterentzeko baimena emango du, Diruzaintzak proposatuta.

d) Autorización de enajenación de los bienes embargados por concurso, o por adjudicación directa, a propuesta de la Tesorería.

e) Agintari eskudunei beharreko babesa eta laguntza eskatuko die zerga-bilketa funtzioa betetzeko.

e) Solicitud a las autoridades competentes de la protección y auxilio necesario para el ejercicio de la función recaudatoria.

f) Udalari egin beharreko ondasunen esleipena erabakiko du, ondasun horien erabilgarritasunari buruz Zerbitzu Teknikoei galdetu ondoren.

f) Acordar la adjudicación de bienes al Ayuntamiento, previa consulta a los Servicios Técnicos sobre la utilidad de los mismos.

g) Udal Zerga-Bilketarako Bulegoan behar bezala beteta aurkezten diren bitartekotzak erabakiko ditu.

g) Resolución de Tercerías que debidamente cumplimentadas se presenten en la Oficina de Recaudación Municipal.

h) Erantzukizunak egokitzeko erabakiak hartuko ditu.

h) Dictar acuerdos de derivación de responsabilidad.

i) Lehiaketa prozesuetan lortutako akordio edo hitzarmenak sinatzeko baimena emango du, hala behar badu.

i) Autorización, si procede, de suscripción de acuerdos o convenios a que se llegue en los procesos concursales.

72. artikulua. Kontu hartzailearen funtzioak.

Honako funtzio hauek izango ditu Kontu-hartzaileak:

a) Udalak onartutako eskubideetan eta bildutako sarreretan aldaketaren bat eragiten duten egintzak fiskalizatu eta aztertuko ditu.

b) Udal Kontabilitatea zuzenduko du eta, 11/1989 eta 4/1991 Foru Arauetan aurreikusitako beste helburu batzuen artean, zerga-bilketaren egoeraren eta zordun bakoitzaren eskubideen egoeraren informazioa eskaintzeko moduan antolatuko du.

c) Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga-bilketaren Arautegiaren arabera, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko Kontuhartzailetzari dagozkion funtzio guztiak beteko ditu.

d) Premiamendu-probidentzia eta Bahitura-probidentzia emango ditu.

e) Zerga-bilketarako jardunbidea zuzenduko du bere bi faseetan, hau da, borondatezko epean eta epe exekutiboan.

f) Udal barne zerbitzuei beharreko laguntza eskatuko die zerga-bilketa gestioa eta, zehatz adierazteko, honako gestio hauek behar bezala bideratu ahal izateko:

1) Zordunaren ondasunei buruzko informazioa eskatuko du bahitura bideratzeko.

2) Zirkulazioaren zaintza beren esku duten Agenteei ibilgailuak bilatu, gorde eta prezintatzeko eskatuko die.

3) Bahituriko ondasunak zaindu eta gordetzeko lokalak eskatuko ditu.

4) Funtzionari teknikoak izendatuko ditu bahituriko ondasunak baloratzeko.

5) Enkantean besterendu ez diren ondasunak Udalaren alde esleitzeko erabilgarritasunari buruzko txostena egingo du.

6) Zorduna non dagoen ez bada ezagutzen, dagozkion ziurtagiria eta informeak eskatuko dizkio zordun hori ustez bizi den udalerriko Udalari.

7) Teknikari bat izendatzeko eskaera egingo du bahituriko ondasun higiezinen mugaketa egin behar denean.

Artículo 72. Funciones del Interventor/a.

Corresponderá al Interventor/a:

a) Fiscalizar y tomar razón de los hechos o actos que supongan una modificación en los derechos reconocidos y en los ingresos recaudados municipales.

b) Dirigir la Contabilidad Municipal y organizarla de tal modo que, entre otros fines previstos en las Normas Forales 11/1989 y 4/1991, cumpla el de aportar información sobre el estado de la recaudación y la situación individualizada de los derechos y los deudores.

c) Todas aquellas funciones que, según el Reglamento de Recaudación del Territorio Histórico de Gipuzkoa, corresponden a la Intervención del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos.

d) Dictar la providencia de apremio y la Providencia de Embargo.

e) Dirigir el procedimiento recaudatorio en sus dos fases de periodo voluntario y ejecutivo.

f) Instar de los servicios internos municipales la colaboración necesaria para el correcto desarrollo de la gestión recaudatoria y en concreto la que se relaciona:

1) Solicitud de información sobre bienes del deudor para el embargo.

2) Solicitud de captura, depósito y precinto de vehículos a las Autoridades que tengan a su cargo la vigilancia de la circulación.

3) Solicitud de locales para la custodia y depósito de bienes embargados.

4) Designación de funcionario técnico para la valoración de los bienes embargados.

5) Informe sobre la utilidad de la adjudicación a favor del Ayuntamiento de bienes no enajenados en subasta.

6) En los supuestos en que sea desconocido el paradero de la deudora o deudor se solicitará al Ayuntamiento del territorio en que se presume la residencia del mismo, la certificación e informes correspondientes.

7) Solicitud de designación de personal técnico en los supuestos que fuera necesario proceder al deslinde de los bienes inmuebles embargados.

74. artikulua. Aholkularitza Juridikoaren funtzioak.

Udal Kontuhartzaileak, honako funtzio hauek, ere, izango ditu, Udaleko Aholkularitza Juridikoaren esku utzitako eskuduntzetan kalterik eragin gabe:

a) Dagokion txostena prestatuko du erantzukizunak egokitu eta aldarrikatzeko erabakia hartu aurretik.

b) Aldez aurreko txostenak prestatuko ditu gatazka jurisdikzionalei buruz.

c) Organo Judizialen aurrean Udalaren ordezkari izango da lehiaketa jardunbideetan eta beste exekuzio jardunbide batzuetan.

d) Bost eguneko epean derrigorrezko txostena prestatuko du Hipoteka Arautegiaren 26. artikuluak xedaturikoaren ondorioetarako. (Premiamendu bidezko prozeduretatik etorritako inskripzioak …).

e) 15 eguneko epean dagokion txostena prestatuko du Alkatetzak bitartekotzak erabaki aurretik.

75. artikulua. Beste funtzio batzuk.

1. Lehen aipaturikoak ez diren Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko organoen esku utzitako beste edozein funtzio Udalari dagokio bere barne antolamendutik etorritako eskuduntzen barnean.

2. Funtzio batzuk nori dagozkion zalantzan dagoenean, Alkatetza-Lehendakaritzak erabakiko du Udal Kontuhartzailetzak proposatuta.

76. artikulua. Zerga-bilketa sistema.

1. Zergen eta zuzenbide publikoko beste diru-sarrera batzuen ordainketa Udal bulegoetan egingo da borondatezko epean edo/eta subjektu pasiboaren etxera igorritako abisu-erreziboan adierazitako erakunde laguntzaileen bidez. Dokumentu hori egokia eta nahikoa izango da zerga erakunde laguntzaileetan ordaintzeko.

2. Aldizkako zergak eta prezio publikoak direnean, ordainketa-dokumentu gisa erabili ahal izango den abisu-erreziboa posta arruntez bidaliko da, hartu izana adierazi gabe, ez baita derrigorrezkoa subjektu pasiboak abisu hori hartu duela egiaztatu ahal izatea.

Artículo 74. Funciones de Asesoría Jurídica.

También al Interventor/a Municipal, le corresponderá, sin perjuicio de las competencias atribuidas a la Asesoría Jurídica del Ayuntamiento, el ejercicio, entre otras, de las siguientes funciones:

a) Informe previo a la adopción del acuerdo de derivación y declaración de responsabilidad.

b) Emitir informes previos sobre conflictos jurisdiccionales.

c) Representación del Ayuntamiento ante los Órganos Judiciales en procedimientos concursales y otros de ejecución.

d) Emitir informe preceptivo, en el plazo de cinco días, a los efectos de lo dispuesto en el artículo 26 del Reglamento Hipotecario. (Inscripciones derivadas de procedimientos de apremio)

e) Informe previo, en el plazo de 15 días, a la resolución de tercerías por parte de la Alcaldía.

Artículo 75. Otras funciones.

1. Cualquier otra función atribuida a órganos del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos distintos de los referenciados anteriormente, corresponderá al Ayuntamiento dentro de la esfera de competencias deducida de su organización interna.

2. En supuestos de dudosa atribución funcional, resolverá la Alcaldía-Presidencia a propuesta de la Intervención Municipal.

Artículo 76. Sistema de recaudación.

1. La recaudación de tributos y de otros ingresos de derecho público municipales se realizará en periodo voluntario en las Oficinas municipales y/o través de las entidades colaboradoras que se reseñarán en el aviso-recibo remitido al domicilio del sujeto pasivo; documento que será apto y suficiente para permitir el ingreso en entidades colaboradoras.

2. En el caso de tributos y precios públicos periódicos, el aviso-recibo, que podrá ser utilizado como documento de pago, se remitirá por correo ordinario, sin acuse de recibo, dado que no es preceptivo el poder acreditar la recepción por el sujeto pasivo.

Dokumentu horiek ez baditu jasotzen, zergapekoa Zerga-bilketarako Udal Bulegora edo Hiritarra atenditzeko Zerbitzura joan ahal izango da eta han dagokion kopia emango zaio.

3. Aldizkako mugaeguna duten zergen kasuan, dagokion Erregistroan alta eman ondoren, kobrantza-egutegian zehaztutako epeetan ordainduko dira hurrengo kuotak, eta premiamendu bidea hastea ez du baztertuko borondatezko epean ordainketa-dokumentua jaso ez izanak.

4. Epe exekutiboan ordaindu beharreko zorrak erakunde laguntzaileetan ordaindu ahal izango dira zordunaren etxera igorriko den dokumentuan zehaztutako baldintza eta epeetan.

Ordainketa-dokumentu horrek jakinarazpena izateko legeak eskatzen dituen baldintzak jasoko ditu eta funtzio hori beteko du. Horrenbestez, hartu izanaren adierazpena beharko du jakinarazpena eraginkorra izan dadin hala eskatzen badu.

5. Zergabilketa kudeatzeko eraginkortasun eta ekonomia irizpideak direla eta, 10,00 euroko kuota likidoa baino gutxiagoko likidazioak salbuetsi egingo dira.

Si no se recibieran tales documentos, el contribuyente podrá acudir a la Oficina de Recaudación Municipal o al Servicio de Atención a la Ciudadanía donde se expedirá el correspondiente duplicado.

3. En los supuestos de tributos de vencimiento periódico, una vez notificada el alta en el correspondiente Registro, las cuotas sucesivas deberán ser satisfechas en los plazos fijados en el calendario de cobranza, sin que sea oponible al inicio de la vía de apremio la no recepción del documento de pago en periodo voluntario.

4. El pago de las deudas en periodo ejecutivo podrá realizarse en entidad colaboradora en las condiciones y plazos determinados en el documento que se remitirá al domicilio del deudor.

Este documento de pago contendrá los requisitos exigidos reglamentariamente para la notificación y cumplirá su función, por lo que será entregado con acuse de recibo siempre que la efectividad de la notificación así lo exija.

5. Por criterios de eficiencia y economía en la gestión recaudatoria del tributo, se procederá a la exención de las liquidaciones cuya cuota líquida no supere los 10,00 euros.

77. artikulua. Banku-helbideratzea.

1. Banku-helbideratzea bultzatuko da, horrek eskaintzen dituen abantailak zabalduko dituen kanpaina sustatuz.

2. Helbideratutako erreziboen kasuan Zergapekoaren helbidera ez da igorriko ordainketa-dokumentua; horren ordez, dagokion banku-kargua sortuko duen euskarri magnetikoan bilduko dira zorraren datuak, eta kontuan kargua egin dela adierazten duen ziurtagiria bidaliko du finantza erakundeak.

3. Helbideratzea ez bada aurrera eramaten, bankuak horren berri emango du berehala Zerga-bilketarako Udal Bulegoak subjektu pasiboari ordainketa-dokumentua bidal diezaion eta hark borondatezko epea amaitu baino lehen jaso dezan.

4. Zergapekoak ordainketa ez badu egokitzat hartzen eta atzera egitea eskatzen badu, erreklamazioa ahalik eta azkarren erabakiko da eta, hala behar badu, ahalik eta epe laburrenean itzuliko da dirua.

Artículo 77. Domiciliación bancaria.

1. Se potenciará la domiciliación bancaria, impulsando la campaña que divulgue sus ventajas.

2. En los supuestos de recibos domiciliados, no se remitirá al domicilio del Contribuyente el documento de pago; alternativamente, los datos de la deuda se incorporarán en el soporte magnético que origine el correspondiente cargo bancario, debiendo la entidad financiera expedir y remitir el comprobante de cargo en cuenta.

3. Si la domiciliación no fuera atendida, la entidad bancaria lo comunicará de inmediato, a fin de que por la Oficina de Recaudación Municipal se pueda remitir al sujeto pasivo el documento de pago y éste pueda ser recibido antes de la conclusión del periodo voluntario.

4. Si la o el contribuyente considera indebido el pago y solicita la retrocesión del mismo, se resolverá con la máxima agilidad la reclamación y, en su caso, se procederá a la devolución en el plazo más breve posible.

5. Zergapekoarenak ez diren beste arrazoi batzuengatik helbideratzeak eraginik izan ez badu eta helbideratzeko agindua emana zuen zor bat ordaintzeko epe exekutiboa hasi bada, hasieran kitaturiko kuota soilik ordainduko da.

78. artikulua. Helbideratzeko jardunbidea.

1. Udal zergak ordaindu behar dituzten subjektu pasiboek egokitzat hartzen dituzten finantza erakundeetan helbideratu ahal izango dute zerga horien ordainketa, artikulu honetan xedaturikoari jarraiki, eta egintza horregatik ez da galtzen inolako jardunbide garantiarik edo helbideratutako kitapen edo/eta erreziboen aurka errekurritzeko aukerarik.

2. Aldizkako mugaeguna eta jakinarazpen kolektiboa duten zerga eta prezio publikoei dagozkien erreziboak soilik helbideratu ahal izango dira.

Helbideratzeek, deshelbideratzeek eta helbideratze aldaketek eragina izan dezaten,
2 hilabetetik beherakoa izango ez den epe batean egingo dira, borondatezko zerga- bilketarako epea hasi aurretik.

Helbideratzea ordainagiriaren bitartez egingo da, eta hor jarduera zergagarri bat baino gehiago bildu ahal izango da.

3. Interesdunek helbideratu, helbideratzea deuseztatu edo aldatu egin ditzakete euren erreziboak ondorengo edozein bide erabiliz:

a) Ordiziako udalerriko bere kutxan edo banketxean.

b) Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan.

c) E-mail bidezko helbideratzea:

Nahi duten subjektu pasibo guztiek errezibo bat helbideratu edo deshelbideratu ahal izango dute, baldin eta:

—Banku-kontua lehendik Udalak balioztatu badu.

—Bankuaren eta Udalaren artean horretarako akordiorik badago.

—Bankuaren eta Udalaren artean horretarako akordiorik badago.

4. Helbideratzeen balioa mugagabea izango da, interesatuak, banku erakundeak edo Udal Administrazioak espreski eta arrazoi egokiengatik deuseztatzen duen arte.

5. Cuando la domiciliación no hubiere surtido efecto por razones ajenas a la o el contribuyente y se hubiere iniciado el periodo ejecutivo de una deuda cuya domiciliación había sido ordenada, sólo se exigirá el pago de la cuota inicialmente liquidada.

Artículo 78. Procedimiento de domiciliación.

1. Los sujetos pasivos de los tributos municipales, podrán domiciliar el pago de los mismos en las instituciones financieras que estimen conveniente con arreglo a lo dispuesto en el presente artículo, sin que dicho acto pueda suponer pérdida alguna de garantías procedimentales o posibilidad de recurrir contra las liquidaciones y/o recibos domiciliados que estimen pertinentes.

2. Podrán ser objeto de domiciliación, únicamente los recibos que se correspondan con tributos y precios públicos de vencimiento periódico y notificación colectiva.

Para que tenga efectos una domiciliación, desdomiciliación y cambio de domiciliación, éstas se habrán tenido que realizar en un plazo no inferior a 2 meses, antes del inicio del periodo de recaudación voluntaria.

La domiciliación será por recibo, el cual podrá agrupar más de un hecho impositivo.

3. Las personas interesadas podrán domiciliar, desdomiciliar o modificar la domiciliación de sus recibos indistintamente:

a) En su caja o banco sito en el término municipal de Ordizia.

b) En el Servicio de Atención a la Ciudadanía:

c) Domiciliación por e-mail:

Podrán domiciliar y desdomiciliar bancariamente los sujetos pasivos que así lo requieran y siempre que:

—La cuenta bancaria esté anteriormente validada por el Ayuntamiento.

—Exista acuerdo previo entre la entidad bancaria y el Ayuntamiento al respecto.

—Exista acuerdo previo entre la entidad bancaria y el Ayuntamiento al respecto.

4. Las domiciliaciones tendrán validez por tiempo indefinido, en tanto no sean anuladas por la persona interesada, por la entidad bancaria, o por la Administración Municipal de manera expresa y por

razones justificadas.

Nolanahi ere, Udal Administraziotik kanpoko arrazoiengatik hiru aldiz baino gehiagotan baztertu diren banku- helbideratzeak baliogabetu ahal izango dira.

En todo caso, las domiciliaciones bancarias rechazadas en más de tres ocasiones y por causas ajenas a la Administración Municipal podrán ser invalidadas.

79. artikulua. Erakunde laguntzaileak.

Artículo 79. Entidades colaboradoras.

1. Zerga-bilketarako laguntzaileak izango dira lankidetza hori emateko baimena duten Erakunde Gordailuzainak. Zehatz adierazteko, Ordenantza hau onartzen den unean, Udalerri honetako honako Aurrezki Kutxa eta Bankuek betetzen dute baldintza hori, baina erakunde horiek inola ere ez dute izango zerga- bilketarako udal organoen izaera:

1) Son colaboradoras en la recaudación las Entidades de Depósito autorizadas para ejercer dicha colaboración, concretándose que en el momento de la aprobación de la presente Ordenanza tal condición la ostentan las siguientes Cajas de Ahorros y Bancos establecidos en el Municipio, los cuales en ningún caso tendrán el carácter de órganos de la recaudación municipal.

-BBVA
-Banco Sabadell
-Banco Santander
-Caixabank
-Caja Laboral
-Kutxabank
-Rural Kutxa

-BBVA
-Banco Sabadell
-Banco Santander
-Caixabank
-Caja Laboral
-Kutxabank
-Rural Kutxa

2. Alkatetza-Lehendakaritzak onartu beharko du erakunde laguntzaile berriak izateko baimena, eta erakunde gordailuzain batek eta, antzeko kasuetan, beste erakunde mota batzuek, edo zergapekoen elkarteek lor dezakete baimen hori.

2. La autorización de nuevas entidades colaboradoras habrá de ser aprobada por la Alcaldía-Presidencia, pudiendo recaer dicha autorización en una entidad de depósito y, en supuestos singulares, en otro tipo de entidades, o en agrupaciones de contribuyentes.

3. Ondorio horietarako, Diruzaintzak bere proposamena egingo du banku erakundearen lankidetzaren eraginkortasuna aldez aurretik baloratu ondoren, Udalak kontuei buruzko informazioa eskatzen duenean eta fondoen bahitura agintzen duenean. Hori guztia jardunbide exekutiboan dauden zorrak kobratu ahal izateko.

3. A estos efectos, la Tesorería formulará su propuesta, habiendo valorado previamente la efectividad de la colaboración de la entidad bancaria cuando el Ayuntamiento solicita información sobre cuentas y ordena el embargo de fondos, todo ello con la finalidad de cobrar deudas incursas en procedimiento ejecutivo.

4. Honako funtzio hauek beteko dituzte zerga-bilketan parte hartuko duten erakunde gordailuzain laguntzaileek:

4. Las funciones a realizar por las entidades de depósito colaboradoras de la recaudación son las siguientes:

a) Edozein pertsonak udal kredituen ordainketa gisa emandako fondoak jaso eta zainduko dituzte, baldin eta Udalerriak emaniko dokumentua aurkezten badute eta ordainketa arautegiak eskatzen dituen epeetan egiten bada.

a) Recepción y custodia de fondos, entregados por parte de cualquier persona como medio de pago de los créditos municipales, siempre que se aporte el documento expedido por el Municipio y el pago tenga lugar en las fechas reglamentadas.

b) Banku erakundeek Udala titularra den kontu-murriztuetan sartuko dituzte zerga- bilketatik etorritako fondoak.

c) Kasu bakoitzean ordaindutako zerga- kreditua eta ordainketa-epea identifikatu ahal izateko datuak grabatuko dituzte banku erakundeek. Zehaztutako baliabide informatikoaren bidez, epe zehatz batean banku erakundearen sukurtsal desberdinetan eginiko zerga-bilketari buruzko datuak emango dituzte aldizka.

d) Bildutako fondoen transferentzia egingo dute sinaturiko Hitzarmenetan zehazten diren egunetan, erakunde gordailuzainen lankidetza erregulatzeko arauei jarraiki.

5. Zerga-bilketaren Arautegiaren arabera, erakunde gordailuzainen lankidetza dohainik izango da.

6. Erakunde laguntzaileen jarduerek baimen-erabakian jasotako ardatzak beteko dituzte zehatz-mehatz, eta erabaki horretan ezinbestean jasoko da arau horiek ez badira betetzen erakundeak duen erantzukizuna.

b) Las entidades bancarias situarán en cuentas restringidas de las que sea titular el Ayuntamiento los fondos procedentes de la recaudación.

c) Grabación puntual de los datos que permitan identificar el crédito tributario satisfecho y la fecha de pago. Transmisión periódica por el medio informático convenido de los datos relativos a la recaudación efectuada en las diferentes sucursales de la entidad bancaria durante ese periodo.

d) Transferencia de los fondos recaudados en las fechas establecidas en los Convenios firmados, en desarrollo de las normas reguladoras de la colaboración por parte de las entidades de depósito.

5. De conformidad con lo que prevé el Reglamento de Recaudación, la colaboración por parte de las entidades de depósito será gratuita.

6. Las entidades colaboradoras, deberán ajustar estrictamente sus actuaciones a las directrices contenidas en el acuerdo de autorización, en el cual necesariamente habrá de contemplarse la exigencia de responsabilidad para el supuesto de incumplimiento de dichas normas.

II. KAPITULUA. ZERGA-BILKETAREN GESTIOA

1. SEKZIOA. Arau mankomunak

80. artikulua. Aplikazio esparrua.

1. Udal Administrazioak, jaso beharreko Eskubide publikoko sarrerak bideratzeko, Zergen eta Aurrekontuen gaineko Foru Arau Orokorretan eta kideko arauetan zehazturiko eskubideak ditu, hori guztia 11/1989 Foru Arauaren 2.2. artikuluan aurreikusitakoaren babesean.

2. Hori horrela izanik, Udalaren ahalmenak eta jarduerak zergen eta Zuzenbide publikoko beste baliabide batzuen bilketa gestiora zabaltzen dira, eta guzti haiei aplikatzen ahal zaizkie zerga kategoriari dagozkion arauzko erreferentziak.

81. artikulua. Aplikazio esparrua.

1. Lehenengo, zordun nagusi gisa ordaintzeko obligazioa dute:

a) Zergen subjektu pasiboek, zergapekoak nahiz ordezkoak izan.

CAPÍTULO II. GESTIÓN RECAUDATORIA

SECCIÓN 1.ª Normas comunes

Artículo 80. Ámbito de aplicación.

1. La Administración Municipal, para la realización de los ingresos de Derecho público que deba percibir, ostenta las prerrogativas establecidas en las Normas Forales General Tributaria, Presupuestaria y normativa concordante, todo ello al amparo de lo previsto en el artículo 2.2 de la Norma Foral 11/1989.

2. Siendo así, las facultades y actuaciones del Ayuntamiento alcanzan y se extienden a la gestión recaudatoria de tributos y de otros recursos de Derecho público, pudiendo entenderse aplicables a todos ellos las referencias reglamentarias a la categoría de tributos.

Artículo 81. Obligados al pago.

1. En primer lugar, están obligados al pago, como personas deudoras principales:

a) los sujetos pasivos de los tributos, sean contribuyentes o sustitutos/as.

b) atxikitzaileek eta,

c) arau-hausleek, ezartzen zaizkien diruzko zigorrengatik.

2. Aurreko puntuan aipatutako zordun nagusiek ez badute obligazio hori betetzen, ordaintzeko obligazioa dute:

a) erantzule solidarioek.

b) erantzule subsidiarioek, zordun nagusiak hutsegile gisa aldarrikatzen badira.

3. Zor beraren erantzule solidarioak edo subsidiarioak bi edo gehiago direnean, haietako edonori eskatu ahal izango zaio zorra osorik ordaintzeko.

4. Aurreko puntuetan aipaturiko zorrak ordaintzeko obligazioa dutenen «mortis causa» oinordekoak, obligazioa zuen pertsonaren egoera berdinean geratuko dira, eta zordun horrek ordaintzeko zituen zergak ordainduko dituzte oinordekotza eskuratzeko legeria zibilak xedaturiko mugak kontuan harturik. Halaz ere, subjektu arau-hauslea hiltzean ez dira transmititzen hari ezarritako diruzko zigorrak.

5. Ordaintzeko obligazioa duena hiltzen bada, eta oinordeko ezagunik ez badago edo oinordeko ezagunek herentziari uko egin badiote, edo onartu ez badute, Zerga- Bilketarako udal Bulegoko Buruak Diruzainari horren berri emango dio, eta honek Aholkularitza Juridikoari jakinaraziko dio beharrezko xedeetarako.

82. artikulua. Helbidea.

1. Arau batek helbide fiskala zehazteko modua espreski arautzen duenean izan ezik, honako hau izango da errekurtso jakin bat gestionatzeko eta zerga-bilketa bideratzeko helbidea:

a) Pertsona naturalen kasuan, ohiko helbidea.

b) Pertsona juridikoen kasuan, helbide soziala.

2. Zergapekoak bere beste helbide bat edo bere ordezkariarena eman dezake administrazio-jakinarazpenak leku horretan jaso ahal izateko.

b) las y os retenedores y,

c) las personas infractoras, por las sanciones pecuniarias que les sean impuestas.

2. Si las deudoras y deudores principales, referidos en el punto anterior, no cumplen su obligación, estarán obligadas al pago:

a) las y los responsables solidarios

b) las y los responsables subsidiarias, previa declaración de fallidos de las deudoras y deudores principales.

3. Cuando sean dos o más las o los responsables solidaros o subsidiarios de una misma deuda, ésta podrá exigirse íntegramente a cualquiera de ellas.

4. Las y los sucesores «mortis causa» de las y los obligados al pago de las deudas enumeradas en los puntos anteriores, se subrogarán en la posición de la persona obligada a quien sucedan, respondiendo de las obligaciones tributarias pendientes de sus causantes con las limitaciones que resulten de la legislación civil para la adquisición de herencia. No obstante, a la muerte de la persona infractora no se transmiten las sanciones pecuniarias impuestas a la misma.

5. En caso de fallecimiento de la persona obligada al pago, si no existen personas herederas conocidas o cuando las personas herederas conocidas hayan renunciado a la herencia, o no la hayan aceptado, la Jefatura de la Oficina de Recaudación Municipal pondrá los hechos en conocimiento del Tesorero/a, quien dará traslado a la Asesoría Jurídica a los efectos pertinentes.

Artículo 82. Domicilio.

1. Salvo que una norma regule expresamente la forma de determinar el domicilio fiscal, a los efectos de gestionar un determinado recurso, a efectos recaudatorios, el domicilio será:

a) Para las personas naturales, el de su residencia habitual.

b) Para las personas jurídicas, el de su domicilio social.

2. La o el contribuyente puede designar otro domicilio propio o de su representante, con el fin de recibir en el mismo las notificaciones administrativas.

3. Udal zergen subjektu pasiboek helbide aldaketak adierazteko obligazioa dute kasu guztietan eta, era berean, jakinarazi egingo dituzte Udaletik bidalitako jakinarazpenetan egon litezkeen akatsak.

4. Subjektu pasiboak beste Zerga-Administrazio batean adierazitako helbidea bere datu-basean duenaren desberdina dela ikusten badu Udalak, azken helbide hori zuzendu ahal izango du, zergapeko bakoitzari loturiko gestio elementu gisa jasoko du eta helbide horretara bidaliko ditu zerga-bilketaren gestiotik etorritako jakinarazpen guztiak.

5. Subjektu pasiboak adierazitako helbidea, edo Udalak bere informazio iturrien arabera aldatutakoa, zergapeko bakoitzari loturiko gestio elementu gisa jasoko da eta helbide horretara bidaliko dira zerga-bilketaren gestiotik etorritako jakinarazpen guztiak.

6. Urte natural bakoitzean sei hilabete baino gehiago udalerritik kanpo bizi diren subjektu pasiboek Ordiziaen bizi den ordezkari bat izendatzeko obligazioa dute.

83. artikulua. Ordainketa egin eta jasotzeko legitimazioa.

1. Obligazioa duen edonork egin dezake ordainketa, eta baita hirugarren pertsona batek ere, zorra kitatzeko ondorio guztiekin.

2. Zorra ordaindu duen hirugarren pertsonak ezin izango dio sartutako dirua itzultzeko eskatu Administrazioari eta obligazioa duenaren beste eskubiderik ere ez du izango, bide zibilean legozkiokeen egintzei kalterik egin gabe.

3. Zerga-bilketarako Bulegoan edo erakunde laguntzaileetan egin daiteke zorraren ordainketa.

84. artikulua. Ordaintzeko erak.

1. Honako era hauetan egin daiteke Ordiziako Udaleko zuzenbide publikoko zerga, prezio publiko eta gainerakoen ordainketa:

a) Erabilera legaleko dirua.

b) Txekea.

Udalak Kreditu eta zordunketa-txartelak eduki ahal izango ditu Udala eta finantza erakundeen artean hitzarturiko sistemetan.

3. En todo caso los sujetos pasivos de los tributos municipales están obligados a declarar las variaciones en su domicilio, y también, poner de manifiesto las incorrecciones que pudieran observar en las comunicaciones dirigidas desde el Ayuntamiento.

4. Cuando el Ayuntamiento conozca que el domicilio declarado por el sujeto pasivo ante otra Administración Tributaria es diferente del que obra en su base de datos podrá rectificar este último, incorporándolo como elemento de gestión asociado a cada contribuyente y constituirá la dirección a la que remitir todas las notificaciones derivadas de la gestión recaudatoria.

5. El domicilio declarado por el sujeto pasivo, o rectificado por el Ayuntamiento en base a sus fuentes de información, se incorporará como elemento de gestión asociado a cada contribuyente y constituirá la dirección a la que remitir todas las notificaciones derivadas de la gestión recaudatoria.

6. Los sujetos pasivos que residan fuera del término municipal durante más de seis meses cada año natural vendrán obligados a designar un representante con domicilio en Ordizia.

Artículo 83. Legitimación para efectuar y recibir el pago.

1. El pago puede realizarse por cualquiera de las y los obligados y también por terceras personas con plenos efectos extintivos de la deuda.

2. La tercera o el tercero que ha pagado la deuda no podrá solicitar de la Administración la devolución del ingreso y tampoco ejercer otros derechos del obligado, sin perjuicio de las acciones que en vía civil pudieran corresponderle.

3. El pago de la deuda habrá de realizarse en la Oficina de Recaudación, o en las entidades designadas como colaboradoras.

Artículo 84. Medios de pago.

1. Son medios de pago de los tributos, precios públicos y demás ingresos de derecho público del Ayuntamiento de Ordizia, los siguientes:

a) El dinero de curso legal.

b) El cheque.

El Ayuntamiento podrá disponer de Tarjetas de crédito y adeudo en sistemas conveniados por el Ayuntamiento con entidades financieras.

2. Merkataritzaren legeriak xedatutako baldintza orokorrez gainera, honako baldintza hauek beteko ditu txekeak:

a) Izenduna izango da Ordiziako Udalaren alde.

b) Eman zen egun bereko edo aurreko zazpi egun naturaleko data izango du.

c) Igorpendutako Erakundeak adostua edo ziurtatua izango da.

d) Igorpentzailearen izena edo izen soziala eramango du sinaduraren azpian argi adierazita.

3. Zuzenbide publikoko zerga, prezio publiko edo gainerako sarrerei dagokien ordainketa bat egin ahal izateko, ordainketa hori onartzeko beharreko dokumentazioa aurkeztuko da ezinbestean. Gutxienez honako zirkunstantzia hauek adieraziko dituzte erreziboek:

a) Zordunaren izen abizenak, izen soziala edo izena eta bere identifikazio fiskalaren zenbakia.

b) Helbidea.

c) Ordaintzen den zuzenbide publikoko zerga, prezio publikoa edo bestelako sarrera.

d) Zenbatekoa.

e) Errezibo hori egin duen organoa.

2. El cheque además de reunir los requisitos generales exigidos por la legislación mercantil deberá reunir los siguientes:

a) Ser nominativo a favor del Ayuntamiento de Ordizia.

b) Estar fechado en el mismo día o en los siete días naturales anteriores a aquél en que se efectuó la entrega.

c) Estar conformado o certificado por la Entidad librada.

d) El nombre o razón social del librador, que se expresará debajo de la firma con total claridad.

3. Para la realización de cualquier ingreso relativo a un tributo o precio público, y demás ingresos de derecho público, el mismo debe realizarse necesariamente a través de la documentación requerida para que aquél se admita. Los justificantes de pago deberán indicar al menos las siguientes circunstancias:

a) Nombre y apellidos, razón social o denominación de la deudora o deudor y, número de identificación fiscal del mismo.

b) Domicilio.

c) Concepto tributario o precio público y demás ingresos de derecho público y periodo a que se refiere.

d) Cantidad.

e) Órgano que lo expide.

85. artikulua. Administrazioari laguntzeko betebeharra.

1. Pertsona natural edo juridiko, publiko edo pribatu orok Udal Administrazioari beharreko datuak eta aurrekariak emateko obligazioa du administrazio horrek Eskubide publikoko sarrera gisa jaso beharreko kopuruak kobratu ahal izateko. 2/2005 Foru Araua, martxoaren 8koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorreko 90. artikuluaren arabera.

2. Bereziki epe exekutiboan Udal Administrazioaren zordunak direnen dirua eskudirutan, kontuetan, baloreak eta beste ondasun batzuk gordailatzen dituzten pertsona edo Erakundeek zerga-bilketarako organoei informazioa emateko eta, legearen arabera, zehazten diren baldintzak betetzeko obligazioa dute.

Artículo 85. Deber de colaboración con la administración.

1. Toda persona natural o jurídica, pública o privada, está obligada a proporcionar a la Administración Municipal los datos y antecedentes necesarios para la cobranza de las cantidades que como ingresos de Derecho público aquella deba percibir. Como lo indica el artículo 90, de la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

2. En particular las personas o Entidades depositarias de dinero en efectivo o en cuentas, valores y otros bienes de deudores a la Administración Municipal en periodo ejecutivo, están obligados a informar a los órganos de recaudación y a cumplir los requerimientos que, en ejercicio de las funciones legales, se efectúen.

3. Zor bat ordaintzeko obligazioa duen orok, eskatzen zaionean, bere ondareko ondasunak eta eskubideak aitortu beharko ditu zor horren zenbatekoa kitatzeko moduko kopuruan.

4. Artikulu honek aipagai dituen lankidetza emateko obligazioak ez badira betetzen, zigorrak ezarri ahal izango dira.

3. Todo obligado al pago de una deuda deberá manifestar, cuando se le requiera, bienes y derechos de su patrimonio en cuantía suficiente para cubrir el importe de la deuda.

4. El incumplimiento de las obligaciones de prestar colaboración, a que se refiere este artículo, podrá originar la imposición de sanciones.

2. SEKZIOA. Kredituaren erantzuleak eta bermeak

SECCIÓN 2.ª Responsables y garantías del crédito

86. artikulua. Erantzule solidarioak.

Artículo 86. Responsables solidarios.

1. Arauetan aurreikusitako erantzukizun solidarioen kasuan, zordun nagusiak borondatezko epean ez badu zorra ordaindu, erantzule solidarioei eskatu ahal izango zaie zor hori ordaintzeko.

1. En los supuestos de responsabilidad solidaria previstos por las normas, cuando haya transcurrido el periodo voluntario de pago sin que la deudora o deudor principal haya satisfecho la deuda, se podrá reclamar de las y los responsables solidarios el pago de la misma.

2. Erantzukizun solidarioak zerga- zorraren osagarri guztiak hartzen ditu, zigorrak izan ezik.

2. La responsabilidad solidaria alcanza a todos los componentes de la deuda tributaria, con excepción de las sanciones.

87. artikulua. Erantzukizun solidarioa eskatzeko jardunbideak.

Artículo 87. Procedimiento para exigir la responsabilidad solidaria.

1. Ordaintzeko borondatezko epea igaro ondoren, Zerga-bilketarako Udal Bulegoko Buruak espedientea prestatuko du, eta haren arabera, erantzukizun solidarioa aldarrikatzeko egintza ematea proposatuko dio Diruzainak Alkatetza-Lehendakaritzari.

1. Transcurrido el periodo voluntario de pago, la Jefatura de la Oficina de Recaudación Municipal preparará el expediente, en base al cual el Tesorero/a propondrá a la Alcaldía- Presidencia que dicte el acto de declaración de responsabilidad solidaria.

2. Zerga-bilketarako Bulegotik erantzuleari, edo erantzuleetako bati, bat baino gehiago badira, jakinaraziko zaio erantzukizuna egokitu aurreko audientzia- epea hasi dela, hamabost egunez, eta epe horretan interesatuek egokitzat hartzen dituzten dokumentuak alegatu eta aurkeztu ahal izango dituzte.

2. Desde la Oficina de Recaudación se notificará a la persona responsable, o a cualquiera de ellas, si son varias, el inicio del periodo de audiencia, por plazo de quince días, previo a la derivación de responsabilidad, en el cual los interesados podrán alegar y presentar los documentos que estimen pertinentes.

Aurkeztutako alegazioak aztertu ondoren, eta zorra ez bada ordaindu, erantzukizunaren egokitze-egintza emango da. Honako hau jasoko du egintza horren jakinarazpenak:

Vistas las alegaciones en su caso presentadas, y si no ha sido satisfecha la deuda, se dictará acto de derivación de responsabilidad, cuya notificación deberá contener:

a) Kitapenaren eta titulu exekutiboaren elementu nagusiak.

a) Los elementos esenciales de la liquidación y del título ejecutivo.

b) Erantzukizuna aldarrikatzeko erabakiaren testu osoa eta haren hedapena.

b) Texto íntegro del acuerdo de declaración de responsabilidad y su extensión.

c) Kitapenaren nahiz erantzukizuna zabaltzearen aurka erantzuleek erabil ditzaketen bideak, epeak eta errekurtsoak zein organoren aurrean aurkeztu behar diren adierazita.

d) Zorra ordaintzeko lekua, epea eta modua. Epe exekutiboan egiten diren diru- sarrerentzako zehazturikoak izango dira horiek.

e) Emandako borondatezko epea amaitu ondoren, erantzuleak ez badu zorra ordaintzen, automatikoki errekargua izango duela adierazten duen ohartarazpena.

3. Zordun nagusi edo erantzule solidario baten aurka bideraturiko ekintzek ez dute eragotziko ordaintzeko obligazioa duten beste pertsonen aurka beste ekintza batzuk bideratzeko aukera, zorra osorik kobratzen ez den bitartean.

88. artikulua. Erantzule subsidiarioak.

1. Arauetan aurreikusitako kasuetan, erantzule subsidiarioek ordaintzeko obligazioa izango dute zordun nagusiek eta erantzule solidarioek huts egiten dutenean eta erantzukizuna egokitzeko administrazio-egintza eman denean. Hala ere, kautelazko neurriak hartu ahal izango dira aldarrikapen hori egin aurretik.

2. Erantzukizun subsidiarioak, arau berezi batek bestelakorik xedatzen ez duen bitartean, hasieran kitaturiko eta zordun nagusiari borondatezko epean jakinarazitako zerga-zorra jasoko du.

3. Erantzukizuna egokitu aurretik, interesatuari audientzia emango zaio aurreko artikuluaren 2. puntuan zehaztutako moduan.

4. Alkatetza-Lehendakaritzak emango du erantzukizuna egokitzeko administrazio- egintza eta egintza hori interesatuari jakinaraziko zaio aurreko artikuluaren 2. puntuan zehaztutako moduan.

5. Izaera orokorrez erantzukizuna subsidiarioa izango da, lege batek solidaritatea zehazten duenean izan ezik.

89. artikulua. Administratzaileen erantzukizuna.

c) Medios de impugnación que pueden ser ejercidos por las personas responsables, tanto contra la liquidación como contra la extensión de responsabilidad, con indicación de plazos y órganos ante los que habrán de interponerse.

d) Lugar, plazo y forma en que deba satisfacerse la deuda, que serán los establecidos para los ingresos en periodo ejecutivo.

e) Advertencia de que transcurrido el periodo voluntario que se concede, si la persona responsable no efectúa el ingreso, la responsabilidad se extenderá automáticamente al recargo.

3. Las acciones dirigidas contra una deudora o deudor principal o responsable solidario no impedirán otras acciones posteriores contra las demás personas obligadas al pago, mientras no se resulte cobrada la deuda por completo.

Artículo 88. Responsables subsidiarios.

1. En los supuestos previstos en las normas, las y los responsables subsidiarias están obligadas al pago cuando las deudoras y deudores principales y responsables solidarios hayan sido declarados fallidas y se haya dictado acto administrativo de derivación de responsabilidad, sin perjuicio de las medidas cautelares que antes de esta declaración puedan adoptarse.

2. La responsabilidad subsidiaria, salvo que una norma especial disponga otra cosa, se extiende a la deuda tributaria inicialmente liquidada y notificada a la deudora o deudor principal en periodo voluntario.

3. Con carácter previo a la derivación de responsabilidad, se dará audiencia a la persona interesada en la forma regulada en el punto 2 del artículo anterior.

4. El acto administrativo de derivación será dictado por la Alcaldía-Presidencia y notificado en la forma establecida en el punto 2 del artículo anterior.

5. La responsabilidad con carácter general será subsidiaria, excepto cuando una ley establezca la solidaridad.

Artículo 89. Responsabilidad de las personas administradoras.

1. Hautsitako zerga obligazioak betetzeko beharreko egintzak bideratzen ez dituzten pertsona juridikoen administratzaileak, ez- betetze hori beren menpean daudenek egin dutenean edo arau-hausteak sortuko lituzkeen erabakiak hartzen dituztenean, honako zor hauen erantzule subsidiarioak izango dira:

a) Zerga arau-hauste arinak direnean, zigorraren kopurua.

b) Zerga arau-hauste larriak direnean, hasierako zorraren kopurua eta zigorra.

2. Pertsona juridikoen jarduera gelditzen den kasuetan, beharreko arretaz jokatu ez duten administratzaileak izango dira erantzuleak subsidiarioki, eta hasierako zorraren kopurua ordaindu beharko dute.

90. artikulua. Ondorengotza zerga-zorrean.

1. Ustiapen eta jarduera ekonomikoetatik etorritako zerga-zorrak ordaintzeko eskatu ahal izango zaie edozein arrazoirengatik jarduera horietan jarraitzen dutenei, inbentarioaren arabera onarturiko herentziari begira Kode Zibilak zehazten duenari kalterik egin gabe.

2. Titularitate hori eskuratu nahi duenak ustiapenaren jardueratik etorritako zorren ziurtagiri bat eskatu ahal izango du Udalean. Ziurtagiriaren edukia ezezkoa bada, edo bi hilabeteko epean ematen ez bada, pertsona horrek ez du inolako erantzukizunik izango puntu honetan aipaturiko zorrei begira.

3. Elkarte bat desegin eta kitatu ondoren, elkarte horrek ordaindu gabe dituen zorrak ordaintzeko eskatuko zaie bazkideei edo kapitalean parte hartzen dutenei, esleitutako kitapen-kuotaren balioa izanik zor horren muga.

91. artikulua. Titular bat baino gehiago aldi berean.

1. Bi titular edo gehiagok egintza zergagarri bat egiten dutenean, solidarioki ordaintzeko obligazioa dute Udal Ogasunaren aurrean, Zergen gaineko Foru Arau Orokorraren 34. artikuluak zehazturiko baldintzetan.

2. Aurreko puntuak aurreikusitakoaren arabera, zerga-zorra osorik ordaintzeko eskatu ahal izango zaio edozein zorkideri.

1. Las personas administradoras de personas jurídicas que no realizaren los actos de su incumbencia necesarios para el cumplimiento de las obligaciones tributarias infringidas, consintieren el incumplimiento por quienes de ellos dependan o adoptaren acuerdos que hicieran posibles tales infracciones, serán responsables subsidiarias de las deudas siguientes:

a) En caso de infracciones tributarias simples, el importe de la sanción.

b) En caso de infracciones tributarias graves, el importe de la deuda inicial más la sanción.

2. En supuestos de cese de las actividades de las personas jurídicas, responderán subsidiariamente, por el importe de la deuda inicial, las personas administradoras que no hubieren actuado con la diligencia debida.

Artículo 90. Sucesión en la deuda tributaria.

1. Las deudas tributarias derivadas del ejercicio de explotaciones y actividades económicas, serán exigibles a quienes les sucedan por cualquier concepto, sin perjuicio de lo que para la herencia aceptada a beneficio de inventario establece el Código Civil.

2. La persona que pretenda adquirir dicha titularidad podrá solicitar en el Ayuntamiento certificación de las deudas derivadas del ejercicio de la explotación. Si la certificación es de contenido negativo, o no se facilita en el plazo de dos meses, quedará aquel exento de responsabilidad por las deudas referidas en este punto.

2. Disuelta y liquidada una Sociedad, se exigirá a sus socias y socios o partícipes en el capital, el pago de las deudas pendientes de aquélla hasta el límite del valor de la cuota de liquidación que se les hubiese adjudicado.

Artículo 91. Concurrencia de titularidad.

1. Cuando dos o más titulares realizan un mismo hecho imponible, están solidariamente obligados frente a la Hacienda Municipal, en los términos establecidos en el artículo 34 de la Norma Foral General Tributaria.

2. En virtud de lo que prevé el punto anterior, se podrá exigir la totalidad de la deuda tributaria a cualquiera de las personas codeudoras.

3. Udalak zorren berri emango die titularkide guztiei, baldin eta haien identitatea ezagutzen badu. Halaz ere, Udaletik kanpoko arrazoiengatik jakinarazpena osorik egin ezin denean, horrek ez du esan nahi artikulu honen 2. puntuan aurreikusitako solidaritatea aplikatuko ez denik.

92. artikulua. Ondasun-erkidegoak.

1. Udal zergetan, zerga horiek arautzen dituzten Foru Arauek hala aurreikusten dutenean, subjektu pasiboen izaera izango dute herentzia hartugabeek, ondasun- elkarteek eta, nortasun juridikorik gabe, zerga ezarri daitekeen unitate ekonomiko bat edo ondare berezia osatzen duten gainerako erakundeek.

2. Aurreko puntuak aipagai dituen Erakundeetako partaide edo titularkideek solidarioki eta dagozkien partaidetzen arabera erantzungo diete Erakunde horien zerga- obligazioei.

93. artikulua. Ordainketaren bermeak.

1. Udal Ogasunak lehentasuna du epea amaitu eta ordaindu ez diren eskubide publikoko krediuak kobratzeko beste hartzekodun batzuk daudenean, Udal Ogasunaren eskubidea jaso aurretik erregistroan behar bezala inskribaturiko jabari, prenda, hipoteka edo beste edozein eskubide errealen hartzekodunak ez badira.

2. Erregistro publiko batean inskriba daitezkeen ondasunak edo eskubideak aldizka zergapetzen dituzten zuzenbide publikoko baliabideei begira, Ogasun Publikoak lehentasuna izango du beste edozein hartzekodun edo erosleren aurretik, nahiz eta haiek beren eskubideak inskribatuak izan, kobratzeko administrazio-egintza bideratzen den urte naturalean eta haren aurrekoan ordaindu ez diren zorrak kobratzeko.

Ondorio horietarako, kobratzeko administrazio-egintza bidean dagoela ulertuko da borondatezko epean zerga-biltzeko jardunbidea hasten denean.

3. Aurreko artikuluan adierazitakoaren lehentasun berdina eduki ahal izateko, hartan zehaztutakoen aurreko zorrengatik, edo kopuru handiagoarengatik, hipoteka berezia osatu ahal izango da Udal Ogasunaren alde. Hipoteka horrek inskribatzen den egunetik aurrera izango du eragina.

94. artikulua. Ondasunen afekzioa.

3. El Ayuntamiento notificará las deudas a todas y todos los cotitulares, siempre que tenga conocimiento de su identidad. No obstante, cuando la notificación no pueda ser completa por razones ajenas al Ayuntamiento, ello no impedirá la aplicación de la solidaridad prevista en el punto 2 de este artículo.

Artículo 92. Comunidades de Bienes.

1. En los tributos municipales, cuando así lo prevean las Normas Forales reguladoras de los mismos, tendrán la condición de sujetos pasivo las herencias yacentes, comunidades de bienes y demás entidades que, sin personalidad jurídica, constituyen una unidad económica o un patrimonio separado, susceptible de imposición.

2. Las y los copartícipes o cotitulares de las Entidades a que se refiere el punto anterior, responderán solidariamente y en proporción a sus respectivas participaciones de las obligaciones tributarias de dichas Entidades.

Artículo 93. Garantías del pago.

1. La Hacienda Municipal goza de prelación para el cobro de los créditos de derecho público vencidos y no satisfechos en cuanto concurra con acreedoras o acreedores que no lo sean de dominio, prenda, hipoteca, o cualquier otro derecho real debidamente inscrito en el correspondiente registro con anterioridad a la fecha en que se haga constar en el mismo el derecho de la Hacienda Municipal.

2. En los recursos de derecho público que graven periódicamente los bienes o derechos inscribibles en un registro público, la Hacienda Pública tendrá preferencia sobre cualquier otra persona acreedora o adquirente, aunque éstos hayan inscrito sus derechos, para el cobro de las deudas no satisfechas correspondientes al año natural en que se ejercite la acción administrativa de cobro y al inmediato anterior.

A estos efectos, se entenderá que la acción administrativa de cobro se ejerce cuando se inicia el procedimiento de recaudación en periodo voluntario.

3. Para tener igual preferencia que la indicada en el artículo precedente, por débitos anteriores a los expresados en él, o por mayor cantidad, podrá constituirse hipoteca especial a favor de la Hacienda Municipal que surtirá efecto desde la fecha en que quede inscrita.

Artículo 94. Afección de bienes.

1. Usufruktuzko eskubide erreal baten, azalera baten, edo kontzesio administratibo baten jabetza edo titularitatea transmititzen bada, Ondasun Higiezinen gaineko Zerga dela-eta, ordaindu gabeko zerga-zor guztiak ordainduko dituzte eskubide horien gai diren ondasun higiezinek.

Transmisio eguna baino lehen sortutakoa izango da eskatuko den zorra, baldin eta indarraldia amaitu ez bazaio.

2. Ondasunen afekzioaren aldarrikapena eta ondorioz erosleari egokituko zaion erantzukizuna Alkatetza-Lehendakaritzak onartuko du, hamabost egunez interesatuari audientzia eman ondoren.

3. Afekzioaren aldarrikapen erabakiaren berri emango zaio erosleari, eta jakinaraziko zaizkio, era berean, ordainketa egiteko epeak eta kitapen horren aurka edo egokitutako erantzukizunaren bidezkotasunaren aurka erreklamazioa egiteko aukera.

1. En los supuestos en que se transmita la propiedad, o la titularidad de un derecho real de usufructo, o de superficie, o de una concesión administrativa, los bienes inmuebles objeto de dichos derechos quedarán afectos al pago de la totalidad de las deudas tributarias pendientes por Impuesto sobre Bienes Inmuebles.

La deuda exigible es la devengada con anterioridad a la fecha de transmisión, siempre que no esté prescrita.

2. La declaración de afección de los bienes y consiguiente derivación de responsabilidad al adquirente, será aprobada por la Alcaldía-Presidencia, previa audiencia al interesado, por término de quince días.

3. La resolución declarativa de la afección será notificada a la persona adquirente, comunicándole los plazos para efectuar el pago y la posibilidad de reclamar contra la liquidación, o contra la procedencia de la derivación de responsabilidad.

3. SEKZIOA. Borondateko zerga- bilketaren berezitasunak

SECCIÓN 3.ª Particularidades de la recaudación voluntaria

95. artikulua. Zerga-bilketarako epeak.

1. Aldizkako mugaeguna eta jakinarazpen kolektiboa duten zorrak, zergak eta zuzenbide publikoko beste diru-sarrera batzuk direla-eta ordaindu behar direnak, borondatezko epean ordaintzeko epeak Udalak zehaztuko ditu kobrantza-egutegian. Egutegi hori Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta Udaleko Iragarki-taulan ezarriko da. Kreditu horiek ordaintzeko epea ez da inoiz ere hilabetetik beherakoa izango.

2. Sarrera zuzeneko kitapenetatik etorritako zorrak borondatezko epean ordaintzeko epea hilabete batekoa izango da haiek jakinarazi ondorengo egunetik aurrera, 2/2005 Foru Araua, martxoaren 8koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorreko 61. artikuluaren arabera.

a) Borondatez aurkezteko edo ordaintzeko epea amaitutakoan, diru-sarrera, % 5eko errekargua aplikatuko da; kasu honetan ez dira berandutze-interesak eskatuko eta ez da beste kasu batean eskatu ahal izango litzatekeen zigorrik ezarriko.

Artículo 95. Periodos de recaudación.

1. El plazo de ingreso en periodo voluntario de las deudas de vencimiento periódico y notificación colectiva, tanto por tributos como por otros ingresos de derecho público, serán los determinados por el Ayuntamiento en el calendario de cobranza, que será publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y expuesto en el Tablón de anuncios municipal. En ningún caso el plazo para pagar estos créditos será inferior a un mes.

2. El plazo de ingreso en periodo voluntario de las deudas por liquidaciones de ingreso directo será el de un mes a partir del día siguiente al de su notificación., como señala el artículo 61 de la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

a) Al término del plazo voluntario de presentación e ingreso, se aplicará un recargo del 5%, con exclusión del interés de demora y de las sanciones que, en otro caso, hubieran podido exigirse.

3. Aurreko puntuetan araututakoak ez diren beste kontzeptu batzuetatik etorritako zorrentzat, zor horiek erregulatzen dituzten arauek zehaztutako epeetan ordainduko dira. Eperik ezartzen ez bada, artikulu honetan ezarritakoa aplikatuko da.

3. Las deudas por conceptos diferentes a los regulados en los puntos anteriores, deberán pagarse en los plazos que determinen las normas con arreglo a las cuales tales deudas se exijan. En caso de no determinación de plazos, se aplicará lo dispuesto en este artículo.

4. Aipaturiko epe horietan ordaindu ez diren zorrak premiamendu bidez eskatuko dira, eta konturako emanalditzat hartuko dira epez kanpo ordaindutako kopuruak.

4. Las deudas no satisfechas en los periodos citados se exigirán en vía de apremio, computándose, en su caso, como pagos a cuenta las cantidades satisfechas fuera de plazo.

5. Borondatezko epean zorra deuseztatu ahal izateko, osorik ordaindu beharko da.

5. Para que la deuda en periodo voluntario quede extinguida, debe ser pagada en su totalidad.

96. artikulua. Kobrantza borondatezko epean.

Artículo 96. Desarrollo del cobro en periodo voluntario.

1. Izaera orokorrez, erakunde laguntzaileetan egingo da ordainketa, baina baimendutako Udal Bulegoetan ere ordaindu ahal izango dira zorrak.

1. Con carácter general, el pago se efectuará en entidades colaboradoras, si bien, también podrán satisfacerse las deudas en las Oficinas Municipales autorizadas.

2. Erabilera legaleko diruz eta txekez egin ahal izango da ordainketa, Ordenantza honen 84. artikuluan xedaturikoaren arabera.

2. Los medios de pago admisibles son el dinero de curso legal y el cheque, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 84 de esta Ordenanza.

3. Zor bat baino gehiago dituenak borondatezko epean berak aukeratzen duen edo dituen zorrak ordaindu ahal izango ditu. Ez badu ezer ere zehazten, zorrik zaharrenetik berrienera aplikatuko da ordainketa hori.

3. La deudora o deudor de varias deudas podrá al realizar el pago en periodo voluntario imputarlo a aquélla o aquéllas que libremente determine. Si así no lo hiciere, se aplicará el pago a las deudas por orden de mayor a menor antigüedad.

4. Kasu guztietan zor bat ordaindu duenari ordainagiri bat emango zaio. Ordainagiri hori makinaz edo eskuz baimendua egongo da bildutako fondoen kontrola errazteko xedean.

4. En todo caso a quien ha pagado una deuda se le entregará un justificante del pago realizado que habrá de estar autenticado mecánica o manualmente, a efectos de facilitar el control de los fondos recaudados.

97. artikulua. Borondatezko epearen amaiera.

Artículo 97. Conclusión del periodo voluntario.

1. Kobratzeko borondatezko epea amaitu, eta borondatezko epe horretan eginiko ordainketei buruzko informazio guztia prozesatu dela egiaztatu ondoren, borondatezko epean ordaindu ez diren errezibo eta kitapenen zerrendak egingo ditu Zerga-bilketarako Udal Bulegoak.

1. Concluido el periodo voluntario de cobro, y una vez verificado que ha sido procesada toda la información sobre cobros efectuados en el periodo voluntario, se expedirán por la Oficina de la Recaudación Municipal las relaciones de recibos y liquidaciones que no han sido satisfechos en periodo voluntario.

2. Zerrenda horretan jaso egingo dira, halaber, erreziboaren kentze, atzeratze, ordainketaren zatikatze, edo deusezte gora- beherak.

2. En la misma relación se hará constar las incidencias de suspensión, aplazamiento, fraccionamiento de pago, o anulación.

3. Ordaindu ez diren zorren zerrenda, eta zor horiek 2. puntuan zehaztutako egoera horietakoren batean ez badaude, nahikoa izango da Premiamendu-probidentzia kolektiboa igortzeko.

4. Premiamendu-probidentzia kolektiboetan ez dira inoiz ere sartuko Administrazio Publikoei kitaturiko zorrak.

3. La relación de deudas no satisfechas y que no estén afectadas por alguna de las situaciones del punto 2 servirá de fundamento para la expedición de la Providencia de Apremio colectiva.

4. En ningún caso se incluirán en las Providencias de Apremio colectivas las deudas liquidadas a las Administraciones Públicas.

4. SEKZIOA. Epe exekutiboan egindako zerga-bilketaren berezitasunak

SECCIÓN 4.ª Particularidades de la recaudación ejecutiva.

98. artikulua. Epe exekutiboaren hasiera.

Artículo 98. Inicio periodo ejecutivo.

1. Aldez aurretik jakinarazi eta zehaztutako mugaegunean ordaindu ez diren kitapenen kasuan, sarrera horiek egiteko borondatezko epea amaitu ondoko egunean hasiko da epe exekutiboa.

1. El periodo ejecutivo se inicia para las liquidaciones previamente notificadas, no ingresadas a su vencimiento, el día siguiente al vencimiento del plazo de ingreso en periodo voluntario.

2. Epe exekutiboa hasteak %5eko errekargu bat sortzen du ordaindu ez den zorraren gainean. Errekargua %5 izango da zordunari premiamendu-probidentzia jakinarazi aurretik egiten bada ordaindu ez den zerga-zorraren ordainketa.

2. El inicio del periodo ejecutivo determina el devengo de un recargo del 5 por 100 de la deuda no ingresada. El recargo será del 5 por 100 cuando la deuda tributaria no ingresada se satisfaga antes de que haya sido notificada al deudor la providencia de apremio.

3. Premiamendu-probidentzia jakinarazi ondoren, 100eko 5eko errekargua izango du 2/2005 foru arauak 61. artikuluaren 5. apartatuan premiatutako zorrak ordaintzeko jartzen den epea amaitu aurretik ordaintzen direnean. Epe hori amaitutakoan, errekargua 100eko 20koa izango da, eta berandutze-interesak kobratuko dira.

3. Una vez notificada la providencia de apremio, pasará a tener el recargo del 5 por 100 hasta la finalización del plazo previsto en el apartado 5 del artículo 61 de la Norma Foral 2/2005. Una vez finalizado este plazo, el recargo será del 20 por 100 y se liquidarán los intereses de demora.

99. artikulua. Ordaintzeko epeak.

Artículo 99. Plazos de ingreso.

1. Hona hemen premiamendu bidez eskatutako zorrak ordaintzeko epeak:

Zerga zorra hilabeteko epean ordainduko da jakinarazpena egin ondorengo egunetik aurrera.

1. Las deudas apremiadas se pagarán en los siguientes plazos:

El pago de la deuda tributaria deberá efectuarse en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación.

2. 1 puntuan zehaztutako epeak igaro ondoren, Bahitura Probidentzia emango du Diruzainak. Zordun batek zor bat baino gehiago dituenean, pilatu egingo dira eta zor horiek guztiak ordaintzeko iristen ez den ordainketa bat egiten bada, zorrik zaharrenei aplikatuko zaie, mugaegunaren arabera zehaztuko delarik aintzinatasun hori, hori guztia kreditu batzuen lehentasuna zehazten duten arauak alde batera utzi gabe.

2. Una vez transcurridos los plazos del punto 1, el Tesorero/a dictará Providencia de Embargo. Si existieran varias deudas de una misma persona deudora se acumularán y en el supuesto de realizarse un pago que no cubra la totalidad de aquellas, se aplicará a las deudas más antiguas, determinándose la antigüedad en función de la fecha de vencimiento del periodo voluntario, todo ello sin perjuicio de las normas que establecen la prelación de determinados créditos.

100. artikulua. Premiamendu jardunbidearen hasiera.

Artículo 100. Inicio procedimiento de apremio.

1. Udal Diruzainak igorritako premiamendu-probidentziaren bidez hasten da premiamendu jarduera.

2. Premiamendu-probidentzia titulu exekutiboa da, eta epai judizialaren indar exekutibo berdina izango du ordaintzeko obligazioa dutenen ondasunen eta eskubideen aurka jotzeko orduan.

3. Premiamendu-probidentziaren aurka jo daiteke honako arrazoi hauengatik:

a) Zorra erabat amaitzea, edo ordainketa exijitzeko eskubidea preskribitzea.

b) Zorra geroratu, zatikatu edo konpentsatzeko eskatzea borondatezko epean, eta zergabilketako prozedura etenda geratzeko beste arrazoi batzuk.

c) Likidazioa ez jakinaraztea.

d) Likidazioa deuseztatzea.

e) Akatsa izatea premiamenduzko probidentziaren edukian, zorduna edo zor premiatua identifikatzea eragozten duena.

4. Aurka egite hori kitapenaren deuseztapenari dagokionean, eta behar bezala arrazoitzen bada, jarduerak bertan behera uzteko agindua emango da. Arrazoia benetan hori dela egiaztatzen bada, dagokion kitapena deuseztatzeko administrazio- erabakia hartuko da eta ontzat hartuko da premiamendu-probidentziaren aurka aurkeztutako errekurtsoa.

101. artikulua. Enkante-mahaia.

1. Diruzainak, hura izango da Lehendakaria, Aholkularitza Juridikoko Buruak, Idazkari lanak egingo ditu honek, eta Zerga-bilketarako Bulegoko Buruak osatuko dute ondasunen enkante-mahaia.

2. Ondasunen enkanteen iragarkiak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaleko Iragarki-taulan argitaratuko dira eta, nahi izanez gero, ondasunaren izaerak eta balorazioak hala eskatzen dutenean, hedadura handiko komunikabideetan eta argitalpen berezietan ere argitaratuko dira.

102. artikulua. Enkanteak.

1. El procedimiento de apremio se inicia mediante providencia de apremio, expedida por el/la tesorer@ Municipal.

2. La providencia de apremio constituye el título ejecutivo, que tiene la misma fuerza ejecutiva que la sentencia judicial para proceder contra los bienes y derechos de los obligados al pago.

3. La providencia de apremio podrá ser impugnada por los siguientes motivos:

a) Extinción total de la deuda o prescripción del derecho a exigir el pago.

b) Solicitud de aplazamiento, fraccionamiento o compensación en período voluntario y otras causas de suspensión del procedimiento de recaudación.

c) Falta de notificación de la liquidación.

d) Anulación de la liquidación.

e) Error u omisión en el contenido de la providencia de apremio que impida la identificación del deudor o de la deuda apremiada.

4. Cuando la impugnación, razonablemente fundada se refiera a la existencia de causa de nulidad en la liquidación, se ordenará la paralización de actuaciones. Si se verifica que efectivamente se da aquella causa, se instará el correspondiente acuerdo administrativo de anulación de la liquidación y se estimará el recurso contra la providencia de apremio.

Artículo 101. Mesa de subasta.

1. La mesa de subasta de bienes estará integrada por el Tesorero/a, que será el Presidente/a, el Jefe/a de Asesoría Jurídica, que actuará como Secretario/a, y el Jefe/a de la Oficina de Recaudación.

2. Los anuncios de subastas de bienes se publicará en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, en el Tablón de anuncios del Ayuntamiento y, optativamente, cuando la naturaleza y valoración del bien lo aconsejen, se insertarán en medios de comunicación de gran difusión y en publicaciones especializadas.

Artículo 102. Celebración de subastas.

1. Ondasunen enkanteetan, mahaiaren aurrean gordailuak uzteko denbora ordu erdikoa izango da lehen lizitazioan. Bigarren lizitazioan gordailuak uzteko epea ordu erdikoa izango da, lehen lizitazioan gordailuak uzteko emaniko ordu erdiko epea amaitzen denetik aurrera kontatua. Lizitatzaileek arauzko gordailuak osatzeko beharreko denboran luzatu ahal izango dira epe horiek.

Gordailu horiek dirutan edo adostutako txekearen bidez egingo dira.

2. Lizitazio atalen zenbatekoa Enkante- mahaiak zehaztuko du osatzeko unean.

3. Lizitatzaileek gutun-azal itxian igorri edo aurkeztu ahal izango dituzte beren eskaintzak, enkantea iragartzen denetik hasi eta enkantea hasi baino ordubete lehenagora arte. Eskaintza horiek eskaintza gorenen izaera izango dute, eta zerga-bilketarako bulegoan horretarako dagoen liburu batean erregistratuko dira. Eskaintza horiekin batera Udalaren alde eginiko txeke adostu bat aurkeztuko da gordailuaren zenbateko bera izango duena.

4. Diruzainak zehaztutako kontuan sartuko dira txekeak, eta adjudikaziodunak izan ez diren lizitatzaileei utzitako kopuruak itzuliko zaizkie enkantea amaitutakoan. Itzulketa hori Diruzainak eginiko txeke batez gauzatuko da.

5. Enkantea egin baino lehen, bere eskaintza gutunazal itxian aurkeztu duen lizitatzaile batek lizitazioan ez parte hartzeko asmoa idatziz adierazten badu, gordailua itzuliko zaio 4. puntuan zehaztutako baldintzetan.

6. Gutunazal itxietan eskaintza bat baino gehiago aurkezten badira, haietako bigarren handienetik aurrera hasiko da eskaintzen onarpena.

7. Mahaiak eskaintzak gutunazal itxian aurkeztu dituzten lizitatzaileak ordezkatu behar dituenean, haien ordez eskaintza egingo du, kasu bakoitzean zehaztutako atalen arabera, eskaintza horretan zehaztutako muga gorena gainditu gabe beti ere.

8. Honako irizpide hauen arabera egingo da enkantea:

—Lehen lizitazioan, besterendu beharreko higiezinei emaniko balorazioa aplikatu ondoko emaitza izango da aplikatuko den tasa. Aurretik Erregistrora

1. En las subastas de bienes, el tiempo para constituir depósitos ante la mesa, será, en primera licitación de media hora. El plazo para la constitución de depósitos en segunda licitación se establece en media hora, una vez haya transcurrido el plazo de media hora concedido para la constitución de depósitos en primera licitación. Estos plazos podrán ampliarse en el tiempo necesario para que los licitadores puedan constituir los depósitos reglamentarios.

Estos depósitos se efectuarán en metálico o cheque conformado.

2. El importe de los tramos de licitación se determinará por la Mesa de Subasta en el momento de constituirse.

3. Las personas licitadoras podrán enviar o presentar sus ofertas en sobre cerrado, desde el anuncio de la subasta, hasta una hora antes del comienzo de ésta. Dichas ofertas, que tendrán el carácter de máximas, serán registradas en un libro, que a tal efecto, se llevará en la oficina recaudatoria municipal. Tales ofertas deberán ir acompañadas de cheque conformado extendido a favor del Ayuntamiento por el importe del depósito.

4. Los cheques serán ingresados en la cuenta que designe la Tesorería, procediéndose a la devolución de los importes depositados a los licitadores no adjudicatarios una vez concluida la subasta. La materialización de tal devolución se efectuará mediante cheque extendido por el Tesorero/a.

5. En el supuesto de que antes de la celebración de la subasta, alguna persona licitadora que hubiera presentado su oferta en sobre cerrado, manifieste por escrito la voluntad de no concurrir a la licitación, se procederá a la devolución del depósito en las condiciones establecidas en el punto 4.

6. En el supuesto de concurrencia de varias ofertas en sobre cerrado, empezará la admisión de posturas a partir de la segunda más alta de aquéllas.

7. Cuando la mesa tenga que sustituir a los licitadores en sobre cerrado, pujará por ellos, según los tramos establecidos para cada caso, sin sobrepasar el límite máximo fijado en su oferta.

8. La subasta se realizará con sujeción a los criterios siguientes:

—En primera licitación, el tipo aplicable será el resultado de aplicar la valoración asignada a los inmuebles a enajenar. En caso de existir cargas que

iritsi diren kargak baldin badaude, emaniko balioaren eta karga horien zenbatekoaren arteko aldea izango da enkatean erabiliko den tasa, eta karga horiek iraungo dute haien iraungipenari errematearen prezioa aplikatu gabe. Lehentasunezko kargek higiezinei emaniko balioa gainditzen dutenean, zorren kopuruari dagokiona izango da tasa.

—Bigarren lizitazioan aplikatuko den tasa aurrekoaren %80 izango da.

—Lehen eta bigarren lizitazioan enkanteak eman gabe geratzen badira, edo esleitutako ondasunekin ez bada zorra kobratzen eta besterendu beharreko ondasunak geratzen badira, jardunbideak aurrera egingo du eta ondasun horiek zuzenean saltzeko iragarkia egingo da. Zuzeneko salmenta hori sei hilabeteko epean kudeatuko da enkantea egin den egunetik aurrera kontatuta. Lehen lizitazioan enkantean parte hartu duten ondasunei aplikatuko zaien tasa lizitazio horri dagokiona izango da.

9.Bi lizitazio egin ondoren, zuzeneko gestio esleipenaren bidez egin ahal izango da salmenta, Enkante-mahaiak kasu bakoitzean zehazten dituen baldintza ekonomikoen arabera. Erakusle gisa, lehen lizitazioaren tasaren %33,5ean zehazten da zuzeneko gestioaren bidezko salmentetan aplikatu beharreko tasa lehen eta bigarren lizitazioan enkanteak ematen ez direnean.

103. artikulua. Berandutze-interesak.

1. Zor diren kopuruek berandutze- interesak sortuko dituzte zorra borondatezko epean ordaintzeko egunaren hurrengotik hasi eta zor hori ordaintzen den egunera arte.

2. Interes-tasa aplikatuko den oinarriak ez du premiamendu-errekargua izango.

3. Zergen gaineko Foru Arau Orokorraren 26. artikuluak xedaturikoaren arabera zehaztuko da interes-tasa.

Berandutze garaian interes-tasak aldatu badira, ordaindu beharreko zorra zehaztuko da interes horien arabera aldi bakoitzari dagozkion kopuruak batuta.

4. Izaera orokorrez, interes nagusiarekin batera kobratuko dira berandutze-interesak; zordunak interes nagusia ordaintzeko unean ez baditu berandutze-interesak ordaindu nahi, zordunari jakinarazi ondoren kitapena egingo da. Kitapen horretan adieraziko dira ordainketa egiteko epeak.

hayan accedido al Registro con anterioridad, servirá de tipo para la subasta la diferencia entre el valor asignado y el importe de estas cargas, que deberán quedar subsistentes sin aplicar a su extinción el precio del remate. En caso de que las cargas preferentes absorban o excedan del valor asignado a los inmuebles, el tipo será el correspondiente al importe de los débitos.

—En segunda licitación, el tipo aplicable será el 80% del anterior.

—En el caso de que las subastas en primera y en segunda licitación hubieran resultado desiertas o, con los bienes adjudicados no se cobrara la deuda y quedan bienes por enajenar, se continuará el procedimiento con el anuncio de venta directa de estos bienes, a gestionar dentro del plazo de seis meses a contar desde la fecha de celebración de la subasta. El tipo a aplicar cuando los bienes hayan sido objeto de subasta en primera licitación será el correspondiente a ésta.

9.Cuando se hayan celebrado dos licitaciones, se podrá proceder a la venta mediante gestión y adjudicación directas, en las condiciones económicas que en cada caso determine la Mesa de Subasta. Indicativamente, se fija en el 33,5 por ciento del tipo de la primera licitación el tipo a aplicar en las ventas por gestión directa cuando hubieran resultado desiertas las subasta en primera y segunda licitación.

Artículo 103. Intereses de demora.

1. Las cantidades adeudadas devengarán intereses de demora desde el día siguiente al vencimiento de la deuda en periodo voluntario hasta la fecha de su ingreso.

2 .La base sobre la que se aplicará el tipo de interés no incluirá el recargo de apremio.

3. El tipo de interés se fijará de acuerdo con lo establecido en el artículo 26 de la Norma Foral General Tributaria.

Cuando a lo largo del periodo de demora, se hayan modificado los tipos de interés, se determinará la deuda a satisfacer por intereses sumando las cuantías que corresponda a cada periodo.

4. Con carácter general, los intereses de demora se cobrarán junto con el principal; si la deudora o deudor se negara a satisfacer los intereses de demora en el momento de pagar el principal, se practicará liquidación que deberá ser notificada y en la que se indiquen los plazos de pago.

5. Dirua bahitzen bada, eskudirutan edo kontuetan, bahitura hori egiteko unean interesak kalkulatu eta atxiki ahal izango dira, kobratu nahi den zorra baino diru gehiago baldin badago.

Lortutako diru kopurua zorra baino txikiagoa bada, konturako emanalditzat hartuko da, eta sortutako interesen kitapena egingo da geroago.

6. 4. eta 5. puntuetatik etorritako kitapenak ez dira egingo 60 euro baino txikiagoak direnean.

5. Si se embarga dinero en efectivo o en cuentas, podrán calcularse y retenerse los intereses en el momento del embargo, si el dinero disponible fuera superior a la deuda perseguida.

Si el líquido obtenido fuera inferior, se considerará entrega a cuenta, y se practicará posteriormente liquidación de los intereses devengados

6. No se practicarán las liquidaciones resultantes de los puntos 4 y 5 cuando su importe sea inferior a 60 euros.

5. SEKZIOA. Atzeratzeak eta zatikapenak

SECCIÓN 5.ª Aplazamientos y fraccionamientos

104. artikulua. Eskaera.

Artículo 104. Solicitud.

1. Udalak eskatutako zergen subjektu pasiboek beren zorren ordainketa atzeratzeko edo zatikatzeko eskatu ahal izango dute.

Kasu berezietan zatikatu edo atzeratu ahal izango da prezio publikoen ordainketa.

1. Los sujetos pasivos de los tributos exaccionados por el Ayuntamiento podrán solicitar aplazamiento o fraccionamiento para el pago de las deudas.

Excepcionalmente se podrán fraccionar y aplazar el pago de los precios públicos.

2. Ordainketak atzeratzeko edo zatikatzeko eskaerak Diruzaintzan egingo dira, eta hari dagokio ordaintzeko obligazioa duenaren ekonomia-finantza egoera baloratzea zor horiek ordaintzeko ahalbideei begira.

2. Las solicitudes de aplazamiento y fraccionamiento se dirigirán a la Tesorería, a quien corresponde la apreciación de la situación económico-financiera del obligado al pago en relación a la posibilidad de satisfacer los débitos.

3. Diruzaintzak beharrekoa jarriko du aurreko puntuan aipatutako eskaera horiek dokumentu berezian egin daitezen. Dokumentu horrek adierazi egingo ditu atzerapena onartu edo gaitzesteko irizpideak, eta jaso egingo du, era berean, ekonomia-finantza zailtasunak arrazoitzeko beharra. Horretarako, egokitzat hartzen diren dokumentuak aurkeztu beharko dira.

Eskaintzen den bermea edo, hala behar badu, fidantza osatzeko ezintasuna xehe adieraziko da, eta ekonomia zailtasunak ere egiaztatu egingo dira.

3. La Tesorería dispondrá lo necesario para que las solicitudes referidas en el punto anterior se formulen en documento específico, en el que se indiquen los criterios de concesión y denegación de aplazamiento, así como la necesidad de fundamentar las dificultades económico-financieras, aportando los documentos que se crean convenientes.

Será preciso detallar la garantía que se ofrece o, en su caso, la imposibilidad de constituir afianzamiento, y también acreditar las dificultades económicas.

4. Atzerapen modalitate gisa ordainketa zatikatzeko aukera, atzerapenari aplikatu beharreko arauek erregulatuko dute bereziki arautua ez dagoen guztian.

4. El fraccionamiento de pago como modalidad de aplazamiento, se regirá por las normas aplicables a éste en lo no regulado especialmente.

5. Honako epe hauetan aurkeztuko dira zatikatze eta atzeratze eskaerak:

5. Las peticiones de fraccionamiento y aplazamiento se presentarán dentro de los plazos siguientes:

a) Zerga-bilketarako borondatezko epean edo dagozkien adierazpen-kitapenak aurkezteko dauden zorrak, epe horren barnean.

a) Deudas que se encuentran en periodo voluntario de recaudación o de presentación de las correspondientes declaraciones- liquidaciones, durante el plazo de éste.

b) Epe exekutiboan dauden zorrak, bahituriko ondasunak besterentzeko baimena eman aurreko edozein unetan.

6. Atzerapena eta zatikatzeak emateko irizpide orokorrak jarraian doan taulan zehazten dira:

b) Deudas en ejecutiva, en cualquier momento anterior a la autorización de enajenación de los bienes embargados.

6. Los criterios generales de concesión de aplazamiento y fraccionamiento se adjuntan en la tabla siguiente:

Kopurua/ Importe	**Bermea/ Garantía**	**Gehieneko epea/ Plazo máximo**	**Aurrerapena/ Anticipo**
< 150,00 €	Ez/No	Ez/No	Ez/No
150,01 - 400,00 €	Ez/No	3 hilabete/ 3 meses	Ez/No
400,01 - 2.000,00 €	Ez/No	6 hilabete / 6 meses	Ez/No
2.000,01 - 6.000,00 €	Ez/No	Urtebete / 1 año	Ez/No
6.000,01 - 12.000,00 €	Bai/Si	Urtebete / 1 año	Ez/No
12.000,01 - 30.000,00 €	Bai/Si	2 urte/ 2 años	Zenbatekoaren % 20 / 20 % del importe
> 30.000,01 €	Bai/Si	Alkatearen edo zinegotzi delegatuaren erabakia / A decisión del alcalde o concejal delegado	Zenbatekoaren % 20 / 20 % del importe

Zerga-kontzeptuak ez direnengatik Udal Ogasunari zor zaizkion kopuruak atzeratu edo zatikatzeko eskaerei aplikatuko zaizkie irizpide horiek.

7. Ez zaie zerga-zorren atzerapen edo zatikapenik onartuko eskaera egiteko unean honako zirkunstantzia hauetakoren batean dauden subjektu pasiboei:

a) Egin beharreko adierazpenak aurkeztu ez dituztenei edo zerga edukiari buruzko informazioa jasotzeko Ordiziako Udalak eginiko eskaeraren bat bete ez dutenei.

b) Ordaindu gabeko zerga-zorrak premiamendu bidean dituztenei. Halaz ere, eta kasu berezietan, behar bezala arrazoitzen bada, zirkunstantzia hori ez da eragozpena izango eskatutako atzerapena edo zatikapena emateko.

Aldez aurretik atzeratu eta zatikatu diren zerga-zorren atzerapen edo zatikapenik ez da onartuko, horren beharra eta betetzeko bideragarritasuna ziurtatzen den kasuetan izan ezik.

105. artikulua. Interesen zenbaketa.

Estos criterios serán de aplicación a las solicitudes de aplazamientos y fraccionamientos de cantidades adeudadas a la Hacienda Municipal por conceptos no tributarios.

7. No se concederá aplazamiento o fraccionamiento de deudas tributarias a los sujetos pasivos, que en el momento de efectuar la solicitud, se encuentren en alguna de las siguientes circunstancias:

a) Que no hayan presentado las declaraciones a que vengan obligados o que incumplan alguna petición o solicitud de información o colaboración de contenido tributario formulada por el Ayuntamiento de Ordizia.

b) Que tengan deudas tributarias pendientes de pago en la vía de apremio. No obstante, y de forma excepcional, siempre que concurran causas de extraordinaria necesidad debidamente justificadas, la existencia de esta circunstancia no será obstáculo para la concesión del aplazamiento o fraccionamiento solicitado.

Tampoco se concederá aplazamiento o fraccionamiento de deudas tributarias previamente aplazadas o fraccionadas, excepto en aquellos supuestos en los que contrastadamente se acredite su necesidad y viabilidad de cumplimiento.

Artículo 105. Cómputo de intereses.

1. Ordainketa atzeratua duten kopuruek, hala behar badu premiamendu-errekarguak izan ezik, berandutze-interesak sortuko dituzte atzerapen horrek irauten duen bitartean, Abuztuaren 2ko 38/2006 Foru Dekretua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergabilketa Erregelamendua onartzen duena 45 artikuluak xedaturikoaren arabera.

Halaz ere, sujetu pasiboak ordainketa geroratu edo zatikatzeko eskaera borondatezko epean aurkeztu badu eta Udalak onartu badio ez da berandutza interesik exijituko. Onura hori lortzeko beharrezkoa izango da ordainketa zerga sortu den ekitaldian egitea.

1. Las cantidades cuyo pago se aplace, excluido, en su caso, el recargo de apremio, devengarán, por el tiempo que dure el aplazamiento, el interés de demora a que se refiere el artículo 45 del Decreto Foral 38/2006, de 2 de agosto, por el que se aprueba el Reglamento de Recaudación del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

No obstante, no se exigirá interés de demora cuando, habiendo sido solicitado por el sujeto pasivo en período voluntario, el Ayuntamiento le haya concedido el aplazamiento o fraccionamiento de pago. Para la obtención de este beneficio será preciso que el pago del impuesto se produzca en el mismo ejercicio que el de su devengo.

1.000 eurotatik beherako zorrak direla- eta eskatutako atzerapen eta zatikapenek ere ez dute berandutze-interesik sortuko

Tampoco devengarán intereses de demora los aplazamientos y fraccionamientos solicitados por deudas cuyo importe sea inferior a 1.000 euros.

2. 1 puntua aplikatzeko orduan, honako arau hauek kontuan hartuko dira:

2. En la aplicación del punto 1, se tendrán en cuenta estas reglas:

a) Borondatezko epea amaitzen denetik hasi eta emaniko epea amaitu artekoa izango da atzerapen denbora.

a) El tiempo de aplazamiento se computa desde el vencimiento del periodo voluntario y hasta el vencimiento del plazo concedido.

b) Zatikapenari dagokionean, frakzio bakoitzak sorturiko interesak kontatuko dira borondatezko epea amaitzen denetik hasi eta emaniko epea amaitu arte. Dagokion frakzioarekin batera ordainduko dira interes horiek.

b) En caso de fraccionamiento, se computarán los intereses devengados por cada fracción desde el vencimiento del periodo voluntario hasta el vencimiento del plazo concedido, debiéndose satisfacer junto con dicha fracción.

3. Atzeratu edo zatikaturiko zorraren mugaeguna iritsitakoan ez bada ordainketa egiten, amaitutako epeei eta amaitu gabeko epeei dagokien berandutze-interesen kitapena baliogabetuko da.

3. Si, llegado el vencimiento de la deuda aplazada o fraccionada, no se realizara el pago se anulará la liquidación de intereses de demora correspondiente a los plazos vencidos y aquellos otros pendientes de vencimiento.

Ordainketa egiten den unean egingo da interesen kitapena, eta zor nagusia hartuko da haien kalkulurako oinarri gisa.

La liquidación de intereses se practicará en el momento de efectuar el pago, tomando como base de cálculo el principal de la deuda.

Dagokion epean indarrean dagoena izango da aplikatuko den interes-tasa.

El tipo de interés a aplicar será el vigente a lo largo del periodo.

4. Atzerapena edo zatikapena onartu zaion subjektu pasiboak zerga-zor osoa epea amaitu baino lehen ordaindu ahal izango du, eta kasu horretan berriro kalkulatuko dira berandutze-interesak.

4. El sujeto pasivo que tenga concedido un aplazamiento o fraccionamiento podrá satisfacer antes del plazo de vencimiento otorgado el total de la deuda tributaria, realizándose en este caso un nuevo cálculo de los intereses de demora.

106. artikulua. Ez ordaintzearen ondorioak.

Artículo 106. Efectos de la falta de pago.

1. Atzerapen epea amaitu ondoren ez badira atzeratutako kopuruak ordaintzen, zera hartuko da kontuan:

a) Atzerapena eman zen unean zorra borondatezko epean bazegoen, premiamendu bidez eskatuko da atzeratutako zorra eta sorturiko interesak ordaintzeko, eta dagokion premiamendu-errekargua izango du. Premiamendu-errekargua hasieran kitaturiko zor nagusiaren gainean aplikatuko da, berandutze-interesak alde batera utzita. Ebazpenean zehaztutako epeetan ez bada ordaintzen, bermea gauzatuko da; bermerik ez badago, edo bermea aski ez bada, premiamendu bideak aurrera egingo du ordaindu gabeko zor hori kobratu ahal izateko.

b) Atzerapena epe exekutiboan eskatu bazen, bermea gauzatuko da eta, bermerik ez badago, edo bermea aski ez bada, premiamendu bideak aurrera egingo du.

2. Zatikapenen epea amaitu ondoren ez badira beharreko kopuruak ordaindu, zera hartuko da kontuan:

a) Zorra borondatezko epean bazegoen, premiamendu bidez eskatuko da dagokien kopuruen ordainketa. Subjektu pasiboari hori jakinaraziko zaio, eta dagozkion epeak emango zaizkio dituen zorrak epe exekutiboan ordain ditzan.

Baldintza horien arabera ordaintzeko obligazioa betetzen ez badu, amaitutzat hartuko dira gainerako epeak, eta premiamendu bidez eskatuko zaio ordainketa egiteko.

b) Zorra epe exekutiboan bazegoen, premiamendu-jardunbideak aurrera egingo du zatikatutako zor guztia ordainarazteko.

3. Zatikaturiko ordainketetan, epe bakoitzeko berme partzialak eta independienteak osatu diren kasuetan, honela jokatuko da:

a) Zatikapena borondatezko epean eskatu denean, frakzio bat ez bada ordaintzen, soilik frakzio hori eta bere berandutze-interesak eskatuko dira premiamendu bidez, dagokion premiamendu-errekargua barne, eta dagokion bermea gauzatuko da ondoren.

b) Zatikapena epe exekutiboan eskatu bada, ordaindu ez den frakzioari dagokion bermea gauzatuko da, eta sorturiko berandutze-interesak kobratuko dira.

1. En los aplazamientos la falta de pago a su vencimiento de las cantidades aplazadas determinará:

a) Si la deuda se hallaba en periodo voluntario en el momento de conceder el aplazamiento, se exigirá por la vía de apremio la deuda aplazada y los intereses devengados, con el recargo de apremio correspondiente. El recargo de apremio se aplica sobre el principal de la deuda inicialmente liquidada, con exclusión de los intereses de demora. De no efectuarse el pago en los plazos fijados en la resolución, se procederá a ejecutar la garantía; en caso de inexistencia, o insuficiencia de ésta, se seguirá el procedimiento de apremio para la realización de la deuda pendiente.

b) Si el aplazamiento fue solicitado en periodo ejecutivo, se procederá a ejecutar la garantía y, en caso de inexistencia o insuficiencia de ésta, se proseguirá el procedimiento de apremio.

2. En los fraccionamientos la falta de pago de un plazo determinará:

a) Si la deuda se hallaba en periodo voluntario, la exigibilidad en vía de apremio de las cantidades vencidas, extremo que será notificado al sujeto pasivo, concediéndole los plazos reglamentarios de pago de las deudas en periodo ejecutivo.

Si se incumpliera la obligación de pagar en este término, se considerarán vencidos los restantes plazos, exigiéndose también en vía de apremio.

b) Si la deuda se hallaba en periodo ejecutivo, continuará el procedimiento de apremio para la exacción de la totalidad de la deuda fraccionada pendiente de pago.

3. En los fraccionamientos de pago en que se hayan constituido garantías parciales e independientes por cada uno de los plazos, se procederá así:

a) Cuando el fraccionamiento haya sido solicitado en periodo voluntario, el incumplimiento del pago de una fracción determinará la exigencia por la vía de apremio exclusivamente de dicha fracción y sus intereses de demora, con el correspondiente recargo de apremio, procediéndose a ejecutar la respectiva garantía.

b) Cuando el fraccionamiento haya sido solicitado en periodo ejecutivo, se ejecutará la garantía correspondiente a la fracción impagada más los intereses de demora devengados.

Bi kasu horietan, zatikapena onartu zen unean zehaztutako baldintzetan geratuko da zatikaturiko gainerakoa.

4. Udalak Erakunde Abal-emaileari bermaturiko zorra ordaintzeko eskatzen badio, honek errekerimendua jaso ondoko hamabost egunetan ordaindu beharko du kopuru hori.

107. artikulua. Bermeak.

